



ARGIA

***Pentsio erreforma,
"aberatsen
presidentearen"
aurkako
protesten hauspo***

30-33. orriak



#2.670 | 2019/12/15 | 3,90 €



***Irakeko herritarren
matxinada odoltsuak
kaleak hartu ditu***

10 | NET HURBIL



***"Turismoa bultzatzea
soilik, menpekotasuna
sustatzea da"***

12 | JONE ALASTUEI



***Hamaika fakultate
okupatuta Mexikon
sexu erasoen aurka***

22 | FEMINISMOA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN # 248

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



INTERNET 30 URTE

ARGI-LUNAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
IDEALINK PHOTOGRAPHY

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | AINGERU EPALTZA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 36 | BIZI BARATZEA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
GRACIELA GARCÍA ROMERO
- 54 | BERANDUEGI



22 | HASERRE FEMINISTA MEXIKON. Gizonek egunean hamar emakumetik gora hiltzen dituzten herrialdean, "nahikoa da!" esan dute feministek. Latinoamerikako unibertsitatek handiena hankaz gora jarri du mugimendu feministak. Protesten artean, hamaika fakultatek gora okupatu dituzte irakasle erasotzaileak kanporatu arte, Vanessa Navaren erreportajearen irakur daitekeenez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

- 10 | NET HURBIL
Irakeko matxinada odoltsua haserrealdi globalaren eta Iran-AEB gerraren artean
Pello Zubiria Kamino
- 12 | JONE ALASTUEI
"Soilik turismoa bultzatzea, menpekotasuna sustatzea da"
Reyes Ilintxeta
- 28 | POLITIKA
Ertzaintzak Brasilen entrenamendu militarrek jaso ditu
Abel Zatarain
- 28 | POLITIKA
Macronen pentsio sistemen erreforma: sektore publikoa desagieteko urrats berria
Jenofa Berhokoirigoin

- 34 | EUSKARA
Bilboko Bordatxo jatetxeari saria: Aitortza, euskaraz bizi nahi duen jatetxeari
Gorka Peñagarikano

- 42 | KULTURA | IÑAKI IRASIZABAL
"Ondo iruditzen zait kultura-industria egotea, baina ez da nire"
Mikel Asurmendi

- 46 | KULTURA | GUSTAVE FLAUBERT HONDARRIBIAN
Kostaldeko herri suntsitu baten erretratua, turista berezi baten lumaz
Gorka Bereziartua Mitxelena

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Bortxatzailea zeu zara

Txileko Valparaision sortutako "Bortxatzaile bat zure bidean" abesti-performancea biolentzia matxistaren aurkako aldarri bilakatu da asteotan. "Errua ez zen nirea, ez non nengoen ezta nire janzkera ere. Bortxatzailea hi heu haiz" dioen letrarekin mundu osoko dozenaka herrialde-tako feministek bat egin dute, baita Bortzirietan euskarazko bertsioa sortu ere. Matxismoaren erroak sakonak dira, baita feministen arteko elkartasuna eta nazioarteko sarea ere. Irudian, Mexiko Hiria.





BAINA EZ GAITEZEN ERRATU: PLANETA PIKUTARA BIDALTZEN ARI DENA EZ DA HAMASEI URTEKO NESKA KONPROMETITU ETA KOHERENTE HORI [GRETA THUNBERG]. PLANETA PIKUTARA BIDALTZEN ARI DIRENAK BESTE BATZUK DIRA, ETA, ORAINGOAN ERE, BETIKO AKATSA EGIN DUGU: GURE BIZITZA IZORRATZEN ARI DIRENEI KONTUAK ESKATU ORDEZ, HAIEN KONTRA DAGOENAREN KONTRAESANAK BILATZEN ARI GARA

Onintza Enbeita (*Berria*)



GERTATZEN DENA DA ELA ETA BESTE SINDIKATUEN ARTEAN BADELA DESBERDINTASUN HANDI BAT: GU PRESTATURIK GAUDE GREBEI AURRE EGITEKO. LORPENAK GREBEN BIDEZ EGITEN DIRELA USTE DUGUNEZ, EGITURA EGIN BEHAR IZAN DUGU HORRETARAKO. ERRESISTENTZIA KUTXA GISAKO TRESNEK ESTRATEGIA BERA BALDINTZATZEN DUTE.

Mitxel Lakuntza (*Berria*)



GURE BIZITZA KASKARTUKO DUTEN ALTERNATIBETAN BIZITZEA BAINO BESTE ERREMEDIORIK EZ DUGU IZANGO

Carlos Taibo
(*Diario de Noticias*)



BISTAKOA ZEN OBRA HORI PREKARIETATE ETA IRUZURRAREN KONTURA EGINGO ZELA; IZAN ERE, ANOETA KIROLDEGIAK 50 MILIOIKO AURREKONTUA EGIN ZUEN, ETA SEKTORE HORRETAKO EDOZEIN ADITUK ONDO DAKI KOSTUA EZIN DELA IZAN 70 MILIOI BAINO GUTXIAGOKOA

Igor San Jose (*Alda*)



DURANGOKO AZOKA

Kontsumoa vs. genealogia

GORKA BEREZIARTUA

Siadeco etxeak egindako inkesta baten berri eman dute gaur Azokako areto nagusian eta horren arabera, sei milioi euro mugitzen ditu euskal kulturaren plaza honek. Baina datu horiek xehe-xehe azalduz Andoni Imazek *Berria*-n idatzitakoari begiratzuz, badaude beste kontu batzuk ere azpimarratzea merezi dutenak. Ororen buru, hona etortzen diren gehienak “euskal kultura bultzatu nahiak” ekartzen dituela nagusiki. Eta horrek zenbait galdera-ikur jartzen dizkio azken urteotan pisu handia hartu duen kontzeptu bati: “kontsumoa” zertan den erreparatzea marko egokia da Durango bezalako fenomenoak ulertzeko? Azoka-tik kanpo urte osoan egiten duguna aztertzeke? Edo beste mota bateko faktoreei eskaini beharko genieke arreta?

Gaur ere jendez beterik daude Landakoko kaleak, gaur ere liburuak, diskoak, DVDak, egutegiak, harpidetzak, rol-jokoak, mahai-jolasak, USBak, QR kodetun txupa-txupsak saltzen ari dira postuetan. Baina gaurko liburu-aurkezpenetako baten ondoren bururatu zait kontsumoaren partez beste zer indartzeko leku egokia den Azoka: euskal kulturaren genealogia martxan ikusteko lekua ere izan daiteke hau, ez dira alferrik pabilioi berean elkartzen belaunaldi ugaritako artistak eta bisitariak. Haietako bakoitzaren ibilbideetako geltokiekin metroko lineen estiloko mapak osatuko bagenu, imajinatzen duguna baino panorama kultural aberatsagoan barrena ibiltzeko gida edukiko genuke.

Genealogiak interpelatu egiten zaitu kontsumoak egiten ez duen modu batean: nondik zatozen, zeri jarraitu diozun, zerekin hautsi duzun. Eta beti agertzen da ezusteko zerbait arbolan behera abiatzean.

Nobedadeen eta kontsumoaren logikak ez diote jaramon handirik egiten genealogiari, nahiago dute atzo aipatzen genuen *star systema* eta dena berria eta aurrekaririk gabeko gisa aurkeztea, horrek produktuari mesede egiten diola-koan; baina horren problemetako bat urteroko tristuratxo da, hemen gertatzen dena behin eta berriz zerotik esplikatu beharra.

Gure kulturaren genealogia-arietak egitea geroz eta premiazkoagoa iruditzen zait, ez agian bisitari gehiago erakartzeko, baina bai haien jakin-minaren dentsitatea handitzeko. Eta haiekin konektatzeko salerosketarena gaintitzen duen modu batean. Durangoren inpaktu ekonomikoa baino puskaz handiagoa baita oraindik ere haren inpaktu kulturala –eta hori baieztatzeke ez dago ikerketarik egin beharrik ere, datorren urtean hona bueltatzearekin aski izango da–. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Fleming



ARITZ GALARRAGA

Bilboko taberna batean geunden geratuta -anonimotasuna gordeko diot lekuari, orain jakingo duzue zergatik-. Herritik hirira egiten duenaren antzera, garaiz iritsi nintzen; alegia, ordua baino askoz lehenago. Taberna ireki berri, bakarrik eman nuen tarte bat, musika ezin hobearekin: Still Corners, El Michels Affair, etc. Ez zitzaidan hiltzeko leku txarra iruditu. Are nire heriotza bera horrelakoa izatea nahiko nuke: bare, doinu arinak arimaren gozagarri, heriotza kolpetik heldu arte -kasu honetan, koadrila zaratsatu bat izan zen-. Eskerrak jendearekin batera nire kontaktua ere etorri zen.

Anonimotasunarekin jarraitzeagatik, soilik esango dut MZ inzialei erantzuten diela nire kontaktuak, eta gure Michel Onfray gisa defini genezakeela. Aspaldi elkarrekin egon gabe, kontu ugari aletu genituen, interesgarrienen artean euskal gizon zahar-runo ezagunei buruzkoak, hemen osoki aipatu ezin direnak -irrikaz espero dut horiei buruz inoiz ezer idaztea-. Baina gehien atsegin izan nuena ondorengo paseotxoak izan zen: Fleming plazara eraman baininduen, euripean, penizilina deskubritzeagatik ezaguna den doktorearen eskultura ikustera. Bertan aipatu zidan eskultura hori auzoko prostitutek finantzatu zutela, esker-rak emateko, noski, hainbat gaixotasunen larria aurrezteagatik. Istorioak *invent* handi bat izateko itxura guztia dauka, zinez, baina izango da aspaldian entzun dudak invent graziosoena. Italiarrek -eta pedanteek- esango luketen moduan, *se non è vero, è ben trovato*.

Prostituzioaz, egia esan, abolizionista naizen, legeztatzearen aldekoa, ez daukat iritzi argirik -eta gainera ez dit inork eskatu-. Dakidan gauza bakarra da giza praktika gutxi eragiten duela nigan higuin sentimendu handiagorik. Eta MZren ahotan invent handiena ere istorio errealea baino puskaz sinesgarriagoa gertatzen dela, misterio, jakinduria, umore poxi bat baldin badauka. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"GIZON BATZUK GUREKIN BATERA DAUDE PROZESUAN, BAINA GUTXIENGOA DIRA"

MARI LUZ ESTEBAN, GIZONAK ETA FEMINISMOARI BURUZ

"[Gizon] Batzuk lasai daude, gurekin batera prozesua egiten, gure alboan; gutxiengo bat dira, dena den. Beste batzuk despistatuta daude: ikasi dute diskurtso bat, feminismoa aldarrikatzen dute, baina ez dute barneratu horrek zer esan nahi duen, eta gauza batzuk egin gura dituzte euren rola galdu gabe. Eta beste batzuk daude kontra, eta erreakzio hori segur aski areagotu egingo da: modu berriak sortuko dira feminismoari aurka egiteko, ez derrigorrez bortitzak". **BERRIA (2019/12/8)**



DANI BLANCO

Kapitalismoa planeta hiltzen ari da




JUAN MARI ARREGI

Mundu osoko hedabideak egunotan Madrilén egindako Klimaren Gailurrari begira egon dira. Munduko zita honetan, gobernuak, erakundeak eta enpresak bildu dira klima aldaketari nola aurre egin aztertzeko. Erakusleihu hori aprobetxatuz, multinazionalak eta konpainiek iragarki arranditsuak argitaratu dituzte, gas isurietatik libre legokeen gizartearen defendatzaile sutsuak bailiran, eta CO2 isurketen murrizketa drastikoa eskatuz.

Baina datuek, “kapitalismo berdea” ez dela existitzen uste dugunon iritzia babesten dute, kapitalismoa baita planeta hiltzen ari dena. Adituen arabera, hondamendiaren arduradunak multinazionalak dira, energia enpresa handiak eta euren zerbitzura dauden gobernuak. Produkzio eredu kapitalistak kalituko du gure lurra, ingurumenaren kontura ahalik eta etekin handiena lortzea bilatzen duen eredu horrek. Munduko CO2 isurien %71 ehun enpresa handik sortzen dute, eta biztanleen %10 aberatsena emisioen %49aren arduradun da.

Gailurrek ez dute balio, multinazionalak gobernuak erabiltzen badituzte txotxongiloak bezala, Kapitalismoaren eskuak mugituta. CO2 isurien murrizketa drastiko horiek egiteko neurri drastikoak behar dira, eta zuzenean Kapitalismoaren bihotzera jo beharko lukete. Besteak beste, energia eta elektrizitatearen sektoreak nazionalizatzea aztertu beharko litzateke, eta enpresa kutsatzailenak desjabetzea.

Adibidez, EAren kasuan, Gasteizko gobernuak koherente izan beharko luke larrialdi klimatikoa ezartzearekin, eta blindatu beharko luke bere lurraldea gasa erazteko egin nahi dituzten zundaketetatik, Subijanan kasu. Eguzkik dioen bezala “iraungita, desfasatua eta ingurune naturalaren kalterako” eredu hau. ●



Bilboko geltokian jaitsi da Anai Handia

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Behinola harro jantzitako Europako hiririk onenaren urrezko dominak orain besteren paparretan distira egiten badu ere, puntako hiriburu iduria mantendu nahirik temati jarraitzen du Bilbaok –uler bedi a tartekatua intentzionalitate osoz jarritako hizki gisa–. Egiari zor, itxurak zaintzeko xedeari ez zetorkion lar ondo hiriak oraintsu arte izandako autobus geltokia, baina hori iraganeko traba izatera igaro da dagoeneko. Azaro amaieran estreinatutako Bilbao Intermodal geltoki berriak ordezkatu baitu Termibus zaharra.

Lurpekoea eta intermodala (hiriko garraio guztiak konektatzen dituen) izateak geltokiari arrisku plusak erantsi ahal dizkiola uste duenik bada, hasieratik lasaitu nahi izan du Bilboko Udalak. Hori, edo eztabaida eragin dezakeela aurreikusita, ezarritako segurtasun sistema iritzia publikoari ondo saltzeaz arduratu da. Azpiegitura “seguru” eta “moderno” batez mintzo dira webgunean; alabaina, nondik begiratzen den, azpiegiturak segurutik modernotik bezainbat duenik ezin esan. Aurpegi-ezagutzako kamerak sistemak, geltokiaren berritasun eta segurtasunaren mukurua bailitza aurkeztu dutenak, zer eta norengandik jagoten duen ez baitago oso argi.

ARGIaren 2.669. zenbakian, zerbitzu publikoetara sarbidea izateko aurpegi-ezagutza darabilen Frantziako Gobernuaren aplikazio berria hizpide, zera irakur zitekeen: “Zenbat anonimok du azken urte honetan jaka hori bat soinean? (...) Eta zerbitzu publikoaren desagerpenaren kontra etzi mobilizatuko diren zenbat anonimo ukanen ditu Gobernuak?”. Aplikazioaren xedea “plaza publikoaren erabateko kontrola” zela ematen zen ulertzeraz.

Bilbon ere antzerako helburuak tarteko direla ondorioztatzea tokiz kanpo dagoenik ez nuke esango. Burgesiaren interes eta neurrietara doitutako hiri eredu neoliberalen, non gehiengoak geroz eta muturrekoagoak diren bizi baldintzei egin behar dien aurre, ondoeza orokortu sentipena geroz eta nabarmenagoa da; ez litzateke harritzekoa gutxiengo pribilegiatuak haserretutako gehiengo kontrolpean eduki nahi izatea. Alkate gisa, geltoki berria jazo diren kaleratzeengatik langileak protesta egin bitartean inauguratzeak ez du eroso izan behar. Alkatearen ikuspuntutik, ziur pankarta atzeko horiek guztiak identifikatuta daudela jakitea lasaigarri izan daitekeela. ●

ETAk eta ASK-k euskal prentsaren aldeko apustua egin ei zuten

Elixabete Garmendia eta Josu Landa abenduaren 6an hizketan aritu ziren Durangoko Azokako Gogoetaren Plazan, "Gu gara euskal prentsa. Euskaraz eta ez elebitan" izenburupean. Egun horretan duela 29 urte *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen. Landak azaldu zuen 80ko hamarkadaren hasieran euskal prentsa oso bazterrekoa zela oraindik, baita ezker abertzalean ere, baina eremu horretan gauzak apurka aldatuz joan zirela:

"Ez zen alderdien kontua soilik ordea. Garai hartan euskaltzaleek ere, erakundetu gabe zeudenek, pentsatzen zuten euskarazko prentsak ez zeukala etorkizunik. Urte mordoia pasatu genituen getto batean gotortuta. (...) Baina lortu zen aldatzea, eboluzio handia eman zen bizi izan nituen 12 urteetan, baita Ezker Abertzalearen baitan ere. Eboluzioa eman zen, besteak beste, ASK-k egindako lanari esker, lortu baitzuen egitura organikoak euskara hutseko egunkariaren aldeko apustua egin zezan. ETak babestu ez balu barne egituretan *Euskaldunon Egunkaria* ez zen kaleratuko, duela 29 urte, gaurko egunez..".



JUANAN RUIZ / FOKU

AKORDIOA AURREKONTUETAN. EAjk eta Elkarrekin Podemosek Eusko Jaurlaritzaren 2020ko aurrekontuak adostu dituzte. Ahal Duguk eta Equok bat egin dute akordioarekin, baina koalizioako Ezker Anitzak ez du berau sinatu eta ezezkoa emango dio Eusko Legebiltzarrean. Horrela bada, EP abstenitu egingo da, aurrekontuak ateratzea ahalbidetuz. Akordioaren arabera, datozen urteetan 200 milioi euro gastu sozialera bideratuko dira, Lander Martinez EPko bozeramaileak jakinarazi duenez.

BANKUEN ERRESKATEA

66.577

Hori da Espainiako Estatuko Kontuen Auzitegiak emandako azken datuen arabera bankuak erreskatatzeko Espainiako Estatuak erabili zuen dirutza –milioi eurotan–. Hau da, bankuei emandako diru publikoa eta oraindik, haren zatirik handiena, bankuek itzuli ez dutena.



FIKZIO SOZIALA egingo dutela esan du ETBko zuzendari Edu Barinagak. Horrela definitu ditu datorren urteari begira ETBk ekoiztuko dituen hiru telesailak. Bata Alardeaz izango da, bestea Altsa-suko auziaz eta hirugarrena Ondarruko narkotrafikoari buruz.



ERRIGORA-K inoiz baino saski gehiago saldu ditu aurtan, 14.300 guztira eta horren ondorioz 200.000 euro bideratuko ditu Nafarroa hegoaldean euskara sustatzera (saskiaren kostuaren %25 horretara bideratzen da). Horietatik 4.000 saski ekologikoak izan dira.



ERRAUSTEGIA-REN aurkako manifestazioa deitu du Usurbilgo Udalak abenduaren 13rako. 19:00etan aterako da udaletxe plazatik. Markel Olano Ahaldu Nagusia-ekin biltzea ere eskatu du eta Gipuzkoako Udalei Diputaziora elkartasun gutunak bidaltzeko eskaera egin die.

IRAKEKO MATXINADA ODOLTSUA

HASERREALDI GLOBALAREN ETA IRAN-AEB GERRAREN ARTEAN

Enbata zakar baten gisa hedatu da munduan zehar protesta-haizea 2019an. Gobernu eta eredu sozio-ekonomiko oso ezberdinetako herrialdeetako kaleak sutu dituzten matxinadok 1848ko eta 1968ko matxinada sail salbuespenezkoekin alderatu ditu zenbait adituk. Nola interpretatu horien jatorria, mamia eta etorkizuneko balizko garapena? Aurtengo odoltsuena datekeen Irakeko errebolta gerta daiteke lurrikara sozialon osagaien konplexutasunaren adibide.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Irakeko lehen ministro Abdel Abdul Mahdik urte berriarekin dimitituko duela iragarri du azaroaren azken egunetan, agintarien ustelkeria, gazteen lanik eza eta Iranen esku hartzearen kontra herrialde osoa inarrosi duten protestei aurre egiteko ahaleginean porrot eginda.

Urriaren 1ean hasi zen Irakeko matxinada handian gutxienez 400 herritarrek galdu dute bizia. 200.000 jende baino gehiagok hartu dute parte protestetan, eta haserrea karriketan erakustera ateratzen dira bai bizi-baldintza oso kaskarrak dauden langile eta langabetuak eta baita klase ertainetako asko ere.

Denbora horretan egoera kontrolatzen ahalegindu da Abdul Mahdi, orain artean moderazio eta patxada handiko gizon fama zeukan politikaria. Baina azaroaren azken astea suertatu da bi hilabeteotako odoltsuena, gutxienez 50 manifestari hil dituzte poliziek eta gobernuaren aldeko miliziek, eta lehen ministroak egoeraren kontrola galduta zeukala eman zezakeen.

Asteazkenean, 27, protestariak eraso eta su eman zitoten Iranek Najafen zeukan kontsuletxeari eta hori probokazio-tzat hartuta poliziek eta miliziek ondoko bi egunetan zientzia erdi manifestari hilez erantzun. Gertakizun txokatuta, Dhi Qar probintziako gobernadoreak dimisioa eman zuen, esanez: "Desohore bat da bere herriko jendea hiltzen duen sistema honen partaide izatea".

Ondorengo erreakzioen artean are erabakiorragoa izan da, ordea, Ali Al Sistani

ayatollah nagusiak publikoki iradokitzea gobernuak aldatu beharra zeukala. Beste zenbait apez xiitak ez bezala –Muqtada al-Sadr populista da horietan ezagunena– Al Sistani bere hautu politikoak soilik krisi larrietan plazaratzen ditu eta Iraken eragin handia aitortzen diote denek.

Azaroaren 29an ostiraleroko sermoian xiita irakiarren apez nagusiak espreski ohartarazi zituen denak gerra zibilean eta tiranian murgiltzeko arriskuaz, espreski eskatu zien gobernuaren indarrei ez hiltzeko protestari gehiago eta matxi-noei, berriz, bortizkeria oro baztertzeko. Egun horretan jakin zuen Abdul Mahdik bere aldia amaitua zela.

Mundu arabiarreko aktualitatearen jarraipena egiten duten hedabideen artean Europan erreferenteetako bat izango da *Orient XXI* weba, frantsesez eta arabieraz idatzia Alain Gresh kazetari beterranoaren zuzendaritzapean. *Orient XXI*-en Mustafa Saadoun kazetariak Irak bertatik bidalita plazaratu du "*Heriotzari aurre egiten dioten gazte horiek*" kronika, kaleetan ikusi eta entzun dituenen bilduma.

"Matxinada 'xiita' bat –idatzi du Saadunek– aginte 'xiita' baten kontra? Urriaren 1ean hasita Irakeko protestariak aurre egin behar diote errepresio gupidagabe bati, haiena mugimendu baketsua den arren. Inguruko eraikinetan ezkutatutako *sniper*-ak (frankotiratzaileek) metraitzen jendetza, oso hurbiletik jaurtitako granadak, atzeritrik ekarritako armen erabilpena... (...) Esan liteke gobernu

eta agintean dauden alderdiek sekulako ikara diotela protesta hauei, zeinetan protagonistak diren inolako lotura politiko edo erlijiozko ezagutzen ez zaien gazte taldeak".

Protestak piztu diren Bagdadeko auzoak jende xehearen bizitokiak dira, xiitak gehien bat, 2003tik talde politikoen militante eta koadro *harrobi* izan direnak. Agintean diren alderdiek ez zuten espero hiriko elite gazte ikasiak abiatu protestak leku eta jende horietara zabaltzea. Alabaina, gazte txirook ere harapatu ditu errepresio oso gogorak berak eta, Saadun bezala beste zenbait behatzaileraren arabera, protestetako jokatubidea baketsua izan delako ez da izan are basatiagoa agintarien errepresioa.

EPIKA ERLIJIOZKOA BARIK, EGUNEROKO OGIA

"Zenbait ekintzailek –idatzi du Sadunek– azaldu didate zein zen ezkutatutako frankotiratzailearen *modus operandi*-a, batzuetan manifestariei ipurdi aldera egiten ziela tiro, haiei iseka egin edo umiliatzeko bezala. Ingurukoak saiatzen baziren zaurituta lurrera eroriari laguntzen, tiroka eragozten zien behartzeko laguna lurrean hiltzen uztera". Askok aipatu da *sniper*-ok ez poliziak baina gobernuaren sostengatzen duten milizia xiitetakoak direla, Iraken gero eta esku hartze handiagoa daukan Irani lan zikina egiten diotenetakoak.

Orient XXI berean islam xiitan aditua den Sabrina Mervin akademikoak "*Er-*

**TAHRIR PLAZAN**

BILDU ZEN HASIERAN
PROTESTA BAKETSUA,
BAGDADEN.
ARRAS IRUDI DIFERENTEA
IKUSI DUGU ONDOREN.

lijiosoari gaina hartu dio nazionalak analisian azaldu du nolako giroa aurkitu duen xiitentzako santua den Karbala hirian eta inguruetan. Han protestak urriko erromesaldiagatik egon dira etenda, ondoren berriro hasteko.

Mervinen aburuz, erlijiozko epika handiak bost axola zaizkie manifestariei, konploten teoriak bezain gutxi: egunero-ko ezin biziak mugiarazi ditu. Eta erromesaldian bezala erlijioak gaina hartzen duenean, elizako ereserki zaharrak eguneratzen dituzte: “O, Profeta, herria matxinatu da... Gobernuarentzako loriarik ez, denak lapurrak”.

Eta Iran? Alde guztietan larrutzen du jendeak, omen, ‘*anaia iraniarra*’, Estatuaren mekanismo guztiak kontrolatzen dituela, ustelkeria orokortuaren parte dela, Iraki zintzurra estutzen diola laguntzeko aitzakian...

Egia da udazken honetan matxinadak pilatu zaizkiela Irango agintariei. Iranen kaleko mobilizazio handiei egin behar izan diete aurre; informazio zehatzak urri zabaldu dira bertatik, baina hildako asko izan direla dirudi. Libano ha- maikagarren krisi larrian murgildu da, han ere protesta mugimendu handiak tarteko eta Iranen papera auzitan. Zenbait analistak azpimarratzen du AEBen eta Saudi Arabiaren eskuak astindu nahi duela Iranen eraginpeko eskualde osoa (Iran, Irak, Siria, Libano...) desestabilizazio ahaleginarekin lotuz matxinadak.

Justu beste muturretik, beste batzuek hauek sartzen dituzte 2019ko protesta handien zaku zabalean: “Lehenbiziko aldiz protestak gertatu dira munduko eskualde eta sistema politiko orotan, aberats demokratikoetan bezala autoritarioetan”, esan du Richard Young akade-

miko eta aholkulari britainiarrak. Branko Milanovic Munduko Bankuko kide ohiarentzat matxinada guztiok biltzen ditu agintearekiko haserrearek eta politikariekiko mesprezuak: “Hau da globalizazio aroko lehen iraultza, ez globalizazioaren kontrakoa”.

Aldiz, *Orient XXI*-eko Alain Greshentzako gaude 2010ean mundu arabiarra astindu zuten iraultzen bigarren olatuan. Lehenak, Tunisiatik 2010ean zabaldua, diktadurak uzkailete lortu zuen, baina Saudi Arabiaren diruz eta militarren esku hartze kontra-iraultzailez ito zituzten. 2019ko bigarren olatuaren erregaia orduko berdinak dira: aginte autoritario itotzaileak, egoera sozial tamalgarriak, langabezia, gazteen etorkizunik eza eta desberdintasun izugarriak. “Ekialde Hurbila da munduko eskualdeetan berdintasun gutxienekoa!”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f v



SOILIK TURISMOA BULTZATZEA, MENPEKOTASUNA SUSTATZEA DA



Uztarrozeko alkatea da eta joan den abuztutik Erronkaribarreko Batzordeko lehendakaria. Lehen emakumea da kargu honetara iritsi dena. Iruñean sortu eta hazia bada ere, herrira bizitzera joatea erabaki zuen eta han dago pozik.

Fidela Bernat, Erronkaribarreko azken 'euskalduna'-ren birbiloba da. Bazter ederrak, biztanleria eskas, turismoa gora... Parke tematiko ez bihurtzea da egun Erronkariren erronka.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zergatik Iruñea utzita etorri zara Uztarrozera, 160 biztanleko herrira bizitzera?

Aita Uztarrozekoa da eta ama Salbaterra Ezkakoa [Zaragoza, Espainia]. Ni beti bizi izan naiz Iruñean, baina asteburu eta opor egunetan beti etortzen ginen. Hemen bizitzea zer zen probatu nahi nuen eta duela zenbait urte hona etorri, gustatu zitzaidan eta herrian gelditu naiz.

Irakaslea zara eta lana duzu hemengo eskolan, alde horretatik suerte handia, ezta?

Bai. Nire lehen lan eskaintza Otsagabian izan zen, gero Iruñean urtebete egin nuen, eta geroztik Erronkariko eskolan ari naiz.

Gazte baten bizimodua nolakoa da hemen?

Ni oso ongi bizi naiz. Ez naiz batere aspertzen. Ideia pila eta gauza asko daukat egiteko. Denbora falta zait dena egiteko. Gainera, kultura eskaintza zabala dago eta herri batek aukera pila eskaintzen dizu mendian ibiltzeko, baratzean ari-tzeko, eskia egiteko eta, batez ere, jendearekin egiteko.

Herri batzuetan badira denda txikiak eta okindegiak. Galipentzuko emakume batek asteartero arraina ekartzen digu. Udan kamionetak etortzen dira fruta eta barazkiekin, baina askok baratzeak eta animaliak ditugu eta autokontsumo asko lantzen da hemen.

Baratze sasoia ez da oso luzea, hemen udaberria berandu hasten delako eta negua berehala iritsi, baina nik adibidez gauza asko potetan, izoztuta edo lehortuta gordetzen ditut urte osorako.

Herri hauetan oso ongi eta lasai bizi daiteke. Batzuk oso modu urbanoan bizi dira, hirian bezala, baina ni konplikatzen naiz eta hemengo bizimodua nahiago.

Txarrena lana eta etxebizitza aurkitzea da?

Nik esango nuke etxebizitza aurkitzea zailagoa dela lana baino. Pirinio aldeko ibar hauetan bada irakaskuntzan edo ta administrazioan lan egiteko aukera. Udaletxean nago ni orain eta ikusten dut



Jone Alastuei Garcia

IRUÑEA, 1991



Irakaslea lanbidez. Iruñean sortu, baina Uztarrozero, aitaren herrira, bizitzera joatea erabaki zuen duela urte gutxi. Herri honetako alkatea da eta Erronkaribarreko Batzordeko burua.

zaila dela lanpostu batzuetarako jendea aurkitzea. Irakaskuntzan ere ordezkioak aurkitzea zaila izaten da inork gutxi etorri nahi duelako. Lan teknikoagoak ez dira erraz betetzen. Honetaz gain, zerbitzuetan aldi baterako lan askotxo egoten da ostalaritzan eta turismoan, batez ere. Hemen dagoen jendearentzako aski lana dago.

Etxebizitzak, aldiz, normalean ez dira alokatzen, eta saltzen diren gutxi horiek ikaragarri handiak dira eta gehienak zaharberritu gabeak. Etxetzar horiek berotzea eta mantentzea, oro har, oso garestia izaten da, gainera.

Zenbat jende bizi zarete hemen?

Pirinio osoan 5.200 pertsona inguru. Erronkaribarren 1.500 pertsona pasatxo daude erroldatuta, baina 700-800 dira urte osoa hemen ematen dutenak. Uztarrozen bere garaian 900 izatera iritsi ziren. Orain kasik 200

udan, baina neguan askoz gutxiago. Iaz 45 pertsona zenbatu genuen astelehenetik ostiralera. Izugarri aldatzen da herria astegunetatik jai egunetara.

Halere baikor gara. Gazte batzuk etorri gara ibarrera bizitzera, batzuk hemengoak jatorriz eta beste batzuk kanpotik etorriak: Iruñetik, Kataluniatik, Espainiar Estatutik, kanpoko etorkin gutxi batzuk...

Adineko gehiegi eta haur gutxiegi?

Bai, Pirinio osoan bezala. Haur oso gutxi jaiotzen dira. Hemen, Uztarrozen, hiru daude eta urtarrilean beste bat sortuko da. Bi urtetik behin bat jaiotzen bada, ez dago gaizki.

Eskolan 3 eta 16 urte bitartean 80 ikasle inguru dugu. Izugarrizko behe-rakada izan dugu bereziki azken bost urte hauetan.

Aurten soilik bi haur sartu dira 3 urtekoak. Heldu den urtean zazpi sartuko dira, baina kopuru hori ez da ohikoa, tamalez.

Parke tematiko bihurtzeko arriskua ikusten duzue?

Bai. Horrekin kezkatuta gaude. Turismo asko dugu eta turismoaren garapenean asko inbertitzen da, baina nik uste dut gehiago inbertitu behar. Litzatekeela bestelako ekimenetan bertako ekonomia produktiboa sustatze aldera. Soilik turismoa bultzatzea menpekotasuna sustatzea da, azken finean. Guk bertako herri eta baliabideak gordetzen ditugu guztion gozamenerako eta pentsatu behar dugu noraino ote den hori ekonomia eredu osasungarria. Gure diru sarreraren zati bat turismotik etortzea ongi dago, baina ez dadila hori izan gure diru sarrera nagusia. Garapena beste modu batez bideratuko nuke.

Nola?

Lehen sektorea indartuz. Azterketa sakona egin behar da. Hemen ditugun natur baliabideak, egurra, abeltzaintza, energia berriztagarriak... hori dena aprobetxatu behar da modu eraginkor batez. Ematen du turismoa diru iturri errazena dela, baina epe luzera begiratu produkzioa sustatzen saiatu behar da. Gure produktuak, gazta, esate

baterako, merkaturatzeko bide egoiak eta traba gutxiago behar ditugu. Orain denda txiki gutxiago dago inguruan eta saltzaile handiekin negoziatu behar dugu ahal bezala. Globalizazioa gu irensten ari da. Mikrotik makrorara pasatzea oso zaila da gaztagile txikientzat.

Honekin batera, argi eduki behar dugu, kontsumitzaile bezala denok asko egin dezakegula. Kontziente izan behar dugu zenbat lan eta zenbat baliabide kostatzen den elikagaiak egitea, adibidez.

Gero eta elur gutxiago egiten du mendian. Hori ere kezagarria da hemengo eski pista eta eskoletarako?

Klima aldaketa dela-eta aurreikuspenak ez dira onak. Oraingo ongi doa eta jende askori enplegua ematen dio. Enpresa txiki hauek, gainera, bestelako proposamenak ere bilatzen ari dira elurra ez dagoen sasoiatarako, ipar martxa ibilaldiak esate baterako. Bada jende oso gogotsua eta nik uste dut gauzak sortzeko gaitasuna dugula, baina horrekin batera lehen sektorea indartu beharra dago, orain oso zaharkituta dagoelako bai adinean baita garapenean ere.

Abereak gero eta gutxiago eta orain berriro hartza arerio. Gobernuaren proposamenekin ez zaudete ados. Zergatik?

Bai, hala da. Oso gai sakona da. Gobernuarekin azaroan bildu ginenean saiatu nintzen helarazten hartzak ekartzearen erabakiak sortzen digun ezinegona. Kontua ez da hartza bai, hartza ez. Hemen larriena da haiek haien planak egin dituztela guri galdetu gabe. Erabaki horiek guztiek eraldaketa garrantzitsu bat dakarte gurera eta aldaketa horietarako prest gauden ala ez, ez digute galdetu. Gure gaineratik pasa dira.

Jende asko hori guztia asimilatzen saiatzen ari da. Hau ez da abeltzaintzaren galera dakarren faktore ez bakarra ezta garrantzitsuena ere, baina falta zitzaguna zen. Hemen bizi garenok gara hau dena zaintzen dugunak eta badira kudeaketa eskubide

“
**Pirinio osoan 5.200
pertsona inguru bizi gara.
Erronkaribarren 1.500
pasatxo daude erroldatuta,
baina 700-800 dira urte
osoa hemen ematen
dutenak”**



batzuk. Horien gainetik pasatu izanak min eta haserre handia eragin digu. Ingu-rumenaren diagnosi sakona egin behar da. Gauza jakina da abeltzaintza estentsiboa oso onuragarria dela biodibertsitateari eusteko, baina hori, adibidez, ez da sustatzen hartza bezainbeste. Ez dago plangintzarik desagertzear dagoen abeltzaintza mota hau babesteko. Larreak zeuden toki askotan orain basoa dago eta horretaz ez da hitz egiten.

Uztarroren orain esplotazio bat itxi berri dute eta ez da izan hartzaren erruz edo erretiroa hartu dutelako. Faktore asko daude, eta hori dena aztertu behar da.

Hartzaren erasoengatik ematen dituzten laguntzak ez dira aski?

Ez, eta gainera ez da batere erraza horiek lortzea. Hasteko, frogatu behar duzu ardi horrek hartzaren eraso zuzena jaso duela eta haren gorpua eraman. Horretarako, lehenbizi, aurkitu behar duzu. Gainera, ematen dizuten diru horrekin ez duzu zure ardia berreskuratzen, zuk daukazun ardi mota hori, zuk urtetan landu eta hobetu duzun arrazakoa. Ardi horiek ez dituzte supermerkatuan saltzen. Eta gainera, izugarrizko paper pila egin behar da. Burokrazia oso konplexua da eta inork ez dio artzainari horretan laguntzen. Gainzama da. Kalteak hildako aleak baino askoz gehiago dira: urduri-

tzen diren eta ihes egiten duten ardiak, abortuak...

Zer neurri berri proposatzen ditu Gobernuak, zehazki?

Aurtengo udan bi artzain laguntzaile jarri zituzten. Horretaz gain, hartza non dabilen jakiteko GPSak eta bestelako komunikazio sistemak jarri dira abian eta aurrerantzean neurri gehiago ere eskura izanen ditugula esan zuten: itxitura birtualak, hartza dabilela ohartarazten duten koloreak, hotsak ateratzen dituzten ardientzako lepokoak, mastin txakurrak, besteak beste. Txakur horiek erabiltzea, adibidez, zaila da, animalia oso errazak ez direlako eta turismoarekin ere oso bateragarriak ez omen dira. Nik, hala ere, ez diet ezetz esaten neurri horiei eta probatu beharko da ea funtzionatzen duten, baina argi utzi nahi duguna da haserre handia dagoela hemen, pertsona askok ikusten duelako hartza ekarri digutela bertan uzteko asmoarekin eta guk onartu beharra besterik ez dugula.

Ehizaren inguruko eztabaidarik ba al da hemengo gazteen artean?

Ez. Gauza arrunta da hemen. Basurdeak, oreinak eta orkatzak, bereziki ehizatzen dira. Mendia aprobetxatzeko beste modu bat da. Ehiztariek ere bide pila zabaltzen dute eta laguntzen dute mendia garbi



FIDELA BERNAT BIRRAMONARI GUTUNA

Fidela

Jakingo bazenu... jakingo bazenu zuretzat hain arrunta zen hura, hain etxekoa... zein garrantzitsu bilakatu den! Erronkariko *uskararen* erreferente-harribitxia zara!

Zenbat elkarrizketa, zenbat galdera: "Nola esaten zaio honi? Eta besteari?". Eta zuk ongi esaten zenuen, bai: "Hauek harrapatu nahi naute, nola ez dut ba jakinen nola esaten zaion honi! Haiek esaten dutenaren berdina da-eta!".

Zu agian ez zinen konturatzen, baina altxorra eraman zenuen zurekin eta horrek altxor bilakatu zaitu zu ere, Fidela Bernat, erronkarieraren azken hitzuna.

"Zergatik ez zenigun transmititu? Zergatik ez genuen jaso?" galde-tu diogu maiz gure buruari. Jakin dugu, bai, azken urteetan argi esan zenuela zure ondorengoek euskara jakin behar zutela, euskara(z) bizitu behar zutela. Eta hala izan da! Zure indarrarengatik, *uskararekiko* erakutsitako maitasunagatik, gogoagatik... Azkenik euskara heldu da zure familiara, Uztarrozeko eta Erronkaribarko kaleetara.

Bihotzean zeneraman Erronkaribarra, bere lurak, bere ohiturak, bere hotsak, hizkuntza... Harrotasunez, azken momentua arte. Orain Erronkaribarko euskaldunak dira bihotzean, harrotasunez, oroimenean gorde zaituztenak.

Eta horregatik zure indarrak oraindik dirau, hemengo larre eta herrietan.

Izan zinetelako gara!
Mila esker guztioi!

mantentzen. Kirolari eta artzainekin batera, haiek dira mendian gehien ibiltzen direnak.

Esan behar da oso jarduera maskulinizatua dela. Beste maskulinitate eredu batzuk lantzeko aprobetxa zezaketen, bidenabar.

Zein da Erronkaribarko Batzordean zure egitekoa?

Ibarrean zazpi udal gara, Burgi, Bidankoze, Garde, Erronkari, Urzainki, Izaba eta Uztarroze, eta horietako alkateek eta beste zenbait ordezkari osatzen dugu Batzordea. Nire zeregina da bilerak deitzea eta antolatzea, herri bateko alkateek egiten duten gisan. Nire lan egiteko modua da dena herritarrekin kontsultatzea.

Nafarroako tokiko administrazioaren berrikuntza martxan dago. Hamabi eskualde berrien artean Piriniokoa txikiena izanen da populazioari doakionean. Aldaketa handia izanen da zuentzat?

Nik dakidala orain ditugun eskumenak izaten jarraituko dugu. Aurreikusia dago idazkaria, kontu-hartzailea eta beste hainbat langile komunean izatea

eskualde barruan. Horregatik, eta herri bakoitzaren izaera, neurri batean, gal daitekeelakoan, batzuk mesfidati daude. Hala ere, nik positiboki ikusten dut denak bat eginik indar handiagoa izanen dugulakoan.

Ipar Euskal Herriarekin harremana mantentzen da?

Ez gehiegi. Lortu dute muga banalerroa izatea. Larrainerekin senidetze ituna dugu eta urtero elkartzen gara jai giroan. Uztaillean *Hiru behien tributua*-ren ospakizuna egiten dugu biarnotarrekin, baina horretan gelditzen da harremana. Orain Belarouat izeneko mugaz gaindiko proiektu interesgarrian ari gara parte hartzen hemengo, Garaziko, Eretako eta Laskuneko ondare naturala, turismoa eta bertako ekonomia sustatzeko. Egitasmo horri esker, Belaguako aterpea laster zabalduko dugu berriro, adibidez.

Nola baloratzen duzu Pirinioko Emakumeen Elkarte eta Emakumeen Sarearen lana?

Eskualde honetan emakumeen mugimendua oso indartsua eta iraunkorra da. Aurten XIX. biltzarra ospatu da. Eraku-

tsi nahi dugu guk ere badugula zer esana eta zer egina. Izugarrizko potentziala dute taldeek, eta gainera, adin guztietako emakumeak biltzen dituzte. Oso talde aktiboak dira. Azken martxoaren 8an, adibidez, erabaki genuen greba eta manifestazioak Iruñean ez, baizik eta gure herrietan egitea, eta karabana itzelak egin genituen. Oso arrakastatsua izan zen.

Erronkaribarreko azken euskaldunaren birbiloba zara.

Amonaren ama zen, aitaren partetik. 93 urterekin hil zen, ni jaio nintzen urtean. Fidela erreferente bihurtu da hiltzen azkena izan zelako, edo behintzat ezagutu zen azkena. Seguruenera beste euskaldunik geldituko zen oraindik garai hartan, baina bera ezagunena izan zen elkarriketa asko egin ziotelako. Ez dut mitifikatu nahi, baina egia da azken urteetan euskararen galeraren kontzientzia hartu zuela eta argi utzi zuen hori ez zuela nahi. Bere desioa zen haurrek euskara ikas zezaten. Gure aitari eta bere anai-arrebei esaten zien "*que esos chiquitos aprendan vasco*". Hala izan da Erronkarin eta Pirinioalde osoan, oro har. ●

Harpidetu
edo
oparitu

elhuyar

aldizkaria

Jakintza zientifikoa,
denon eskura

Zientzia eta teknologian gertatzen den guztia:
gaurkotasuna, iritzia, istorioak,
hemengo ikerketa...

Hiru hilez behin, etxean bertan.
Egunero, webgunean.



20 €
URTEAN

Harpidetzak: aldizkaria.elhuyar.eus / 943 36 30 40



Iritziak

Mendien gaineko elur-jauzi espekulatiboa



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

Uste dut euskaldunek eta katalanek ezaugarri bereizgarri batzuk ditugula, eta horietako bat gure mendiekiko maitasuna da. Gurean, negua iristearekin batera, eski-turismoa berriz ere aktibatzen duen elur-mantu batek estaliko ditu Pirinioak. Gaur egun, Herrialde Katalanetan eski alpinoko hogeita bat estazio daude zabalik: Katalunian hamar daude, hiru Andorran eta zortzi Ipar Katalunian. Azken urteetan, elur faltagatik edo porrot ekonomikoagatik zazpi estazio itxi egin behar izan dira. Itxiera horiek iragarritako tragedia baten premisa da.

Instalazioek urte osoan orbain bat marrazten dute okupatzen dituzten haranetan, paisaian eragin izugarria dute, guztira 326 igogailu daude: 164 km zabal eta 226 km luzera dituen eremu geografiko batean kokatuta. Elur artifizialeko 5.290 kanoi izaki.

Azken hilabeteotan, Generalitateak iragarri duenez, Bartzelona-Pirinioak hautagaitza aurkezteko asmoa du 2026ko Neguko Joko Olinpikoen antolakuntza bere gain hartzeko. Lanpostuak sortzea eta jarduera ekonomikoa bultzatzea agindu du. Argudio horiekin, Generalitateak Kataluniako Pirinioetako sei estazioen jabe den egungo jabe edo akziodun nagusia izatea justifikatu du.

Lehenagoko jabeek ez zuten milioika eurotako zorren ardura beren gain har-

Enpresa handiek lurraldea ekonomikoki hazteko eta ustiatzeko duten nahikeria ez da txikitzen, hainbat alderdik (PdeCATk eta ERCk, besteak beste) abentura olinpikoa bultzatzen eta defendatzen du

tu. Ordainketak eta legezko zerga-kargak onartu gabe alde egin zuten. Hala ere, Generalitateak hainbat enpresaburu erreskatatu zituen, Convergència i Unió (CiU) bezalako alderdi politikoen oniritziar. Estazio horiek 68 milioi euroko defizita sortu dute azken hamarkadan, zergadunen artean egindako milioiko galerak kontuan hartu gabe: hamar milioi euro 2017an, eta azken ekitaldian beste hamar milioi gehiago.

Berriz ere, eredu garatzaile baten aurrean gaude, kasu honetan hiltzera kondenatuta dagoena. Hala baieztatzen du hainbat erakundek, baita Generalitateak berak agindutako txosten zientifiko guztiek ere. Azken 50 urteetan Pirinioetako tenperaturak gora egin du, planetan baino %30 gehiago, eta elur-kota 1.900

metroraino igo da, estazio gehienek bategi bestekoaren gainetik. Klima Aldaketari buruzko Kataluniako Hirugarren Txostenaren kalkuluen arabera, joera horrek are eta gehiago eragingo du eta mendikateak bere elur-bolumenaren erdia galduko du datozen hogeita hamar urteetan. Halaber, tenperaturaren igoerak ez ditu ziurtatuko elur artifiziala sortzeko gutxieneko baldintzak, hau da, eski-estazioetako instalazioek errentagarriak izateko behar duten beharrezko denbora tartea.

Audituen gomendioak ezagutu arren –hondamendia begi-bistakoa da–, enpresa handiek lurraldea ekonomikoki hazteko eta ustiatzeko duten nahikeria ez da gutxitzen, hainbat alderdik (PdeCATk eta ERCk, besteak beste) abentura olinpikoa bultzatzen eta defendatzen du, eta hautagaitza are lehiakorragoa egiten duten proiektuak gauzatzen ari dira. Hala ere, asmo horren aurkako erantzuna berehalakoa izan da: lurraldearen defentsarako hainbat plataformak bat egin du SOS Pirineus talde koordinatzailearekin. Garapen eredu horren aurka direnak bat datoz, baita lurraldean eragin handia duten proiektuak gauzatzeko gardentasun eta eztabaida sozial eza salatzen dutenak ere. Lelo zahar bat gailendu da berriro ere: maite duenak ez du suntsitzen. ●

“Egizu zugatik, egizu planetagatik”



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Hala dio iragarkiak, baikei: “Egizu zugatik, egizu planetagatik”. Sikateak, uriolak, lubiziak, suteak... Milioika lagunek (7 milioik 2019ko lehen sei hilabeteetan) euren etxeak utzi behar izan dituzte hondamendien erruz. Apartheid klimatikoa da. Mendebaldeak txirotu dituen herrialdeetakoak dira, momentuz, desplazatu hauek, amortizatutako bizi-tzak, beraz. Baina, amortizatutako bizi-tzak geureak ere izango ditugu zuriok laster. Hondamendi ekologikoak ez baita-ki koordinada geografikoez.

Hemen, itsasoak gora egiten badu, zenbat zentimetro izango diren eta zelan erango digun pentsatzen aritzen gara, norbaitek konponbideren bat emango digulako fedez. Trankil. Herritarrok errundundu gaituzte honezkero; orain, salbatzaile ager daitezke: gure otoitzei erantzuteko, kapitalismo berdea jaio da.

“Ez naiz Montessori, ez naiz Luther King, baina nik ere mundua alda dezaket”. Zelan? Konpainia elektriko aldaturik. Horren erraz. “Egizu zugatik, egizu planetagatik”.

Jan kinoa, *super-elikagaia*. Kinoaz elikatzen zirenek orain ezin badute ordaindu, prezioak hiru bider altxatu ditugulako, zer ardura du? Super *cool* da eta, txo, “*porque tú lo vales*”.

Burger Kingek *Rebel* hanburgesa sortu du, Amazonia suntsitu bitartean. *Green-washing* modernoak: produktu “berdeak” kontsumitzea errebelari lotuta; ikus ez dezagun benetako errebelia bakarra ez kontsumitzea dela. Etxean ikasi genuen ez dela gastatu behar, beharrezkoa ez bada. Etxeko ekonomiarekin lotutako jarraibidea da hori, baina askoz harago doana: alferrik gastatzeak edo alferrik galtzen uzteak immoraltasunetik asko dauka, horretara bultzatzen gaituen sistema kapitalistak bezala.

Kapitalak dena baliatzen du, baita herri mugimenduak ere. Baina borroka ekologista klase borroka izan da beti: ugazabek zikindu, langileok irentsi. Aurten 50 urte dira Erandion poliziak Josu Murueta eta Anton Fernández hil zituela. Bilbo Handian kutsaturik jaio ginen, aurpegia eta birikiak brillantina beltzez beteta eta isuriaren sirena hotsei adi. Ugazabei ez zien inporta gu hiltzea eta munduaren oraingo ugazabei ere ez. Eurek ez dute klima alaketaren ondoriozko pairatuko, bizitzeko eskubidea erosteko beste diru daukate eta.

Premia larrietan kapitalismoak plusbalio iturria baino ez du ikusten. Horregatik ari dira enpresak euren errekonbertsioa bultzatzen, estatuek eta nazioarteko erakundeek marko egokia

eman diezaieten aldarrika. Herenegun energiaren autoekoizpena zigortzeko eskatu eta eguzkiaren zerga asmatu zen bezala, orain, mundu mailako kapital handiaren estrategiari jarraiki, markoa aldatzeko exijitzen dute: marko fiskal onuragarria eta diru-laguntzak. Eta besteok paga dezagun, kontsumoari zergen bitartez, besteak beste.

Honen aurrean, *New Green Deal* omen da erantzun bakarra. Baina keynesianismo berdea praktikara eroaterakoan, eroanez gero, ahaztu alderdi sozial osoa. Estimulu publikoa ez da ongizate-estatura edo giza eskubideen babesera bideratuko, kapitalismoaren gaurko estrategian ez baitago horrelakorik.

Kapitalismoaren estrategian oligopolioak daude, multinazionalak eta aurretiaz prestatzeko gaitasun ekonomikoa izango duten enpresa handiek baino ez dutelako iraungo. Aberastasuna esku are gutxiagotan. Eta sozialki “ekofaxismorantz” jotzen duten jendarteak: erregimen autoritarioak, apartheid klimatikoan sakonduko dutenak.

Bien bitartean, Europako Legebiltzarra klima larrialdia deklaratu berri du, IBEX35eko enpresek finantzatzen lagundu duten goi-bileraren atarian. Dena ordenan, beraz. ●

Ekimen berriak, ilusio berrituak, betiko hutsak



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
DONOSTIAKO UDALEKO
ZINEGOTZIA

Hitz potoloz eta esaldi hanpatuz bete dizkigute hedabideak agintariei, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Ederki apaindutako kondena saltzen digute, urtea joan eta urtea etorri. Beti gurpila asmatzen, beti Sisiforena egiten gabiltza euskaldunok, hartu behar-ko lituzketen erabakiei eta bete behar-ko lituzketen ardurei iskin egiten dietelako handi-mandiek. Dagokiena egin ordez, hor aritzen dira, fokupean, bateko emaitza on eta besteko aurrerapen miresgarria saltzen, euskaraz bizitzea beste nahirik ez duen euskaldun zintzoari adierazten dioten bitartean norbera dela bere nahiaren eta ezinaren arduradun bakarra, eta ezintasun hori euskaldunok erakusten dugun ahalmentze eskasaren ondorio dela. Ustez, ahalmentzearen aldekoa den mezu ofizialaren atzean, benetan, erruduntasunaren mezu judeo-kristaua dago. Onartuko genieke agintariei gizonek gutxietsitako emakumeei kontu eske aritzea, beren buruen estimu handiagoa ez izateagatik? Bada, euskararekin badirudi baietz.

Kokoteraino nago marketinaz, leporaino faltsukeriaz. Ez zait bidezkoa iruditzen erakundeak paparra harrotuta agertzea, ez behintzat euskarak bere tokia berreskuratu dezan egitea dagokiena egiten ez duten bitartean. Hoge urte eman dituzte boikot batean, euskalgintzak abiatutako

ekimenei hauspo eman ordez, zangotra-ba eta oztopoa besterik ez eskaintzen; ez dituzte berrogei urte aski izan, oraindik ere euskaldunon jasateko gaitasunaren bizkar jarraitu beharko du bake sozialak; eta orain, beraien ahotik entzun behar konpromisorako, berrikuntzarako eta denok batera aritzeko deiak.

Ez zait bidezkoa iruditzen erakundeak paparra harrotuta agertzea, ez behintzat euskarak bere tokia berreskuratu dezan egitea dagokiena egiten ez duten bitartean

Euskararen zabalpenaren alde egin dena herriaren bultzadari esker egin da, eta horretan jarraituko dugu, ilusioa eta kemena berrituta. Erakundeek ere euskararen erabilera normalizatzeko langintzan egon behar dute, hori baita beren egitekoa, baina fokutik urrun. Euskaltzaleok, ordea, erdigunera, gureari eusteko ekinbidea sustatu behar dugu, euskaraz bizitzera, geu izatera, geurean atsegin hartzera, geurea eskaintzera, gehiago izatera eta oztopatzaileei aurre egitera. ●

Nire partez



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Biziraupenaren prezioa egunero ordaintzen dugu. Kuadrillan, familian... eta, noski, lanean. Gure feminismoa kudeatzen dugu urdailari kolpeka. Feminista jatorrak gara, umoretsuak eta den-dena testuinguruan jartzen adituak, ez dugu giro txarrik sortzen, batzuetan, nekatuta, irribarrea esfortzurik gabe ateratzen zaigu. Isilpean gordetzen dugu unean-unean komeni zaigun gure alderdia, eta ia une guztietan dago ezkutatzea komeni zaigun alderdiren bat.

Batzuetan, ordea, urdailak ezin dio kolpeari eutsi, eta *Exorzista*-ko neska bilakatzen gara. Hori onenean, gehienetan,

diskrezioa eta *diskrezioa*, eskerrak urdailarena metafora bat den, inpotentziazko prozesuetan barna gure txikitasunaren mugak gorputzean sentitzen ditugu.

Etxeratzean, zer tontakeria, inguruan ez dugun konpainiaren bat bilatzen dugu, besteak beste, Irantzu Varelaren *El Tornillo*-ko bideoak. Eta barrez lehertzen gara (edo izoztu). Etxean, azkenean. Ez datoz garai onak beren ezezaguntasunaren alderdi handi bat eman dutenentzat. Antolatutako kolpe kolektiboek beren masailetan joko dute, ari dira dagoeneko; nirearen partez jarritakoetan. Eskerrik asko, alde aurretik. ●

Euskal mafia



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Berria-n irakurri dugu. Dave Bieter, Boiseko jarduneko alkate, “euskal mafiarekin” lotu dute bere aurkari politikoez Idahoko hiriburuko alkatetzarako hauteskunde kanpainan. Euskal jatorriko alkateak, berriz, hitz horiek onartezintzat jo ditu, eta barkamena eskatzeko galdegin du, bera ez ezik euskal amerikar komunitate osoa iraintzen dutelakoan. Lerro hauek idazteko tenorean ez dakigu zer erantzun izan duen Bieterrren eskaerak, ezta Boiseko alkatetzak haren eskutan segitzen duen. *Berria*-ko artikulua, nolahi ere, ez zuen argitzen zehazki zeri erraten zioten “euskal mafia”.

Gure berun-urteetan, prentsa espainiarrean maiz samar agertu den kontzeptua da euskal mafia. ETari horrela deitu izan zaio, haren metodoak –garuneko tiroa, zerga iraultzailearen xantaia– Siziliako *Cosa Nostra*-renekin parekatu nahirik. “Dena ETA da” teoria hedatuz bezala, ezker abertzale osora zabaldu zen delako izendapena. Azkenean, abertzaletasunarekin edo, bertzerik gabe, euskalduntasunarekin loturiko edonor eta edozer bilakatu zen zutabegile edo

*Hitztripu batekin hasi
naiz lerro hauek idazten.
Irakurleak begi parean duen
izenburua idatzi nahi izan
dudan lehen kolpean, bere
kasa ibili zait gogo barrena*

tertuliano batzuentzat “euskal mafia”. Zenbait jenderen eldarnio gaiztoenetan, Euskal Herriko gizartean ez ezik Estatu Estamentu eta erabakiguneetara alegatzen ziren delako erakundearen garroak. Maila apalagoan izanagatik, Nafarroan horrela bataiatu izan du iritziermaile eskuindar batek baino gehiagok herrialdeko euskal lobbygintza herabea.

Gisako zerbaitez ari ziren Boisen Bieterrren aurkariak? Auskalo. Literaturari, zinemari eta telebistari esker aspaldi gureganatu genuen hainbat mafia “nazionalen” existentzia Ameriketako Estatu Batuetan. Italiarra, famatuena, baina baita irlandarra, judua eta txina-

tarra ere. Bide beretik dakigu gaizkile japoniar edo errusiarren antolakundeek beren ordezkaritza zabaldu dituztela “askatasunen herrian”, Kolonbiako edo Mexikoko kartel latinoak ahortzi gabe. Euskaldun xaloak, berriz halakorik sortu gabeak ziren gaurdaino.


Hori aldatu ote da orain? Zintzoa eta prestua izateaz nekatu ote da artzainkume eta apezkondo herria? Eta hala balitz, hain txarra litzateke? Pentsa, zenbat aukera berri. Zenbat negozio –argiak eta ilunak– loratuko liratekeen, itsasoz haragoko gure senideekin harremanak estutzeko aitzakian. Zenbat literatura, zenbat zinema, deitura euskalduneko *scorsesetar* eta *cohendarren* eskutik. Eta, lobby bat, benetakoa, hango Kapitolioan gure interesak defendatzeko.

Hitztripu batekin hasi naiz lerro hauek idazten. Irakurleak begi parean duen izenburua idatzi nahi izan dudana lehen kolpean, bere kasa ibili zait gogo barrena. Inkontzientea edo. Halako moldez non “Euskal magia” gelditu zait idatzirik. Zuzenketa eginga dago, baina zer pentsatua eman dit bi hitzen hurbiltasunak. ●



12.11 Lagun Artean Kantari
12.14 Ruper Ordorika
12.17 Inigo Muguruza beti gogoan,
adiorik ez! (Sarrerak agortuta)
12.18 Kirmen Uribe eta lagunak
12.20 Zea Mays
12.21 DJ Bull
12.22 Olentzero jaia
12.28 Mikel Urdangarin
12.31 Gabon zaharra 2019

Agenda osoa
www.kafeantzokia.eus



Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa
2019

Finala

Abenduak

14 17:00

Donostia. Illunbe (Donostia Arena)

Agin Laburu Rezola
Beñat Gaztelumendi Arandia
Jon Maia Soria
Alaia Martin Etxebeste
Ane Labaka Mayo
Oihana Iguaran Barandiaran
Beñat Lizaso Alberdi
Nerea Elustondo Plazaola

Aurkezleak: Ion Zaldúa Brit eta Itziar Etxezarreta Arakistain



Antolatzailea



Babesleak



www.bertsosale.eus

Laguntzailea



**Mexikoko protesta feministek
Latinoamerikako unibertsitaterik
handiena astindu dute**

«EZ DUTE GURE ISILTASUNAREN EROSOTASUNIK INOIZ GEHIAGO EDUKIKO»

Joan den abuztuan munduan zehar zabaldu ziren Mexikoko emakumeen haserrea erakusten zuten irudiak. Lau poliziak bortxatutako adin txikiko bati gobernuak emandako erantzun kontraesankorrak piztu zuen sumina. Orduko amorrua ez da apaldu ordea, eta hezkuntza zentroetan gertatzen diren jazarpen kasuei erantzunez, mugimendu feministak hainbat fakultate okupatu ditu eta klaserik gabe daramate hilabete inguru. Erasotzaileak zentroetatik kanporatu arte ez dute protesta amaituko.

ERREPORTAJEA | **VANESSA NAVA**
ITZULPENA | **LUKAS BARANDIARAN ETA**
IRATI SALSAMENDI LOZANO

Feminizidioa ez da arazo berria Mexikon. 90eko hamarkadatik aurrera Chihuahuako estatuak arreta erakarri zuen; Ciudad Juarez-en emakumeen kontrako indarkeria kasu basatiak gertatzen hasi ziren: bortxatuak, itoak, desagertuak... Garai hartan, eraildako emakumeen albisteak gertakari isolatu gisa zabaldu ziren herrialdeko beste zokoetara. Charles Bowden AEBetako kazetariaren teoriak zorrotz asmatu du: mugako hiri hori, kapitalismoaren esperimentazio laborategi gisa erabili dute. Hala, arazoa herrialde osora hedatu da. Emaizta, milioika emakume mexikarren prekarizazioa, eta egunero bizitzako arlo askotan jasaten duten jazarpena.

Hamar emakume hiltzen dituzte egunean Mexikon, munduan emakume izateko herrialde arriskutsuenetako batean. Segurtasun Sistema Nazionalaren datu ofizialen arabera, 2019ko urtariletik irailera, gutxienez, eraildako 2.833 emakume erregistratu zituzten.

Baina, feminizidio gisa soilik, horietako 726 ari dira ikertzen.

Biktima gehienek bortizkeria basatia jasan dute, eta haien gorpuak errepideetan, moteletan eta parkeetan botata utzi dituzte. Hori gutxi ez eta, ohikoa da erasotzaileak biktimen inguruko pertsonak izatea: senideak, bikoitekideak, lagunak edo irakasleak.

Aurrekoa ez da nahikoa izan gobernuak egoerari amaiera eman nahi izateko. Emakumeen gehiengoak ondo daki eraso batetik bizirik atera eta erasotzaileak salatzea erabakitzen badu —ez du axola zein erakundetara jotzen duen—, seguru aski erasoaren baldintzengatik ezbaian jarriko dutela haren hitza, eta jarraian kulpabilizatu egingo dutela. Desagertutako emakumeen amek, alabak aurkitzeko laguntza eskatu dute, aitzakiak jaso izan dituzte bilaketa prozesua luzarazteko. Eta, ezustean, ikerketa abiaraztea lortuz gero, sarri berandu izaten da, desagertetatik hilabete batzuetara hasten dutelako, eta askotan ezinezkoa da ezer argitzea.



AL
BENEMERITO
JUANES
LA PATRIA

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO

ACPO



UNIBERTSITATEAN ERE EZIN SALBU EGON

Emakumeen aurkako bortizkeria guztia ez da mugatzen narkotrafiko, polizia ustel eta delinkuentzia gehien dauden estatu arriskutsuenetara. Antzina Mexikoko Hiria *segurtasun burbuilatzat* jotzen zen herrialde osora barreiatu den kaosaren erdian. Eta hiriaren erdian, Mexikoko UNAM Unibertsitate Nazional Autonomo entzutetsua ere –Mexikoko handiena, 400.000 ikasle dituen, eta ezaguna Poliziak sarrera debekatua duen lekuetako bat delako– ez da libra geratu. Horrenbeste hazi da bortizkeria

hirian, ezen UNAMeko *segurtasun burbuila* ere hautsi egin den.

2017ko maiatzaren 3an 22 urteko ikasle Lesvy Osorioren gorpua, telefono kabina bati lotuta agertu zen unibertsitateko campus nagusian. Momentu hartatik, segurutzat hartzen zuten espazio bat arrisku eta mehatxu bilakatu zen. 2018ko apirilean Mariela Vanessa, Filosofia eta Letretako fakultateko ikaslea desagertu egin zen, eta inork ez daki non dagoen oraino. Bi kasuetan, haien amen hitza zalantzan jarri zuten. Lesvyren amari esan zioten alabak drogak kontsumitzen zituela. Mariela Vinessaren amari, fakultateko buruek lagun-

tza ukatu zioten, eta ez zuten ikerketarako informaziorik eman nahi izan.

Hor da Graciela eta bere alabaren kasua ere. Irakasle eta ikasle ziren hurrenez hurren Arkitektura fakultatean, eta biak hil zituzten haien etxean. Gobernuak ez zuen inongo presarik izan kasuan esku-hartzeko. Miranda Mendoza Flores ere bahitu eta hil zuten. UNAMeko ikaslearen gorpua, Mexiko Hiriko gunerik arriskutsuenetako batean aurkitu zuten. Haren ikas-kideak unibertsitateko campus nagusian manifestatu ziren gertaera salatzeke, eta UNAMek bidalitako segurtasun indarrek gogor erreprimitu zuten protesta.



GOIA JO ARTE

Testuinguru horretan, abuztutik aurrera haserrea eta ausardia hedatzen hasi ziren emakume taldeen artean. Egunerokoa Mexikon emakumeek jasaten duten egoerarekin gogaituta, eta kezkarik azaltzen ez duten erakundeei eta estatuari justizia eskatzeaz nekatuta, haien artean antolatzen eta elkar zaintzen hasi ziren. Bereziki, unibertsitateko ikasleek, eta beste hainbat lekutako emakumeek zaintza eta defentsa pertsonalerako sareak sortzeari ekin zioten, erasoei aurre egiteko. Haien manifestazioek baketsuak izateari utzi zioten –egoera berezia, Mexikoko errepresio maila altua kontuan hartuta–. Eta helburu zehatzak ere planteatu dituzte: jazarpenik, bortxaketarik eta estalketarik gabeko lekuak sortzea.

Loratze horretan eragina izan zuen abuztuan gertatutako bortxaketa ba-

tek: lau poliziek adin txikiko emakume bati egindakoa jakin zen. Milaka emakume atera ziren kalera. "Denok izan ginen" leloarekin haien arteko konplizitatea adieraziz, ezagutezin bilakatu ziren; Mexikoko Hiriko gobernuak ezin izan zuen topatu "buruzagi edo antolatzailearik", eta ezin izan zizkioten inori egotzi monumentu garrantzitsuei egindako kalteak.

Unibertsitatara itzulita, ez da ausazkoa hor islatu izana azken hilabeteetako haserrea eta gogaitasuna: erregistroak dituzten unibertsitateen artean UNAMen gertatu dira eraso gehien. Unibertsitate entzutetsu horrek datu asaldagarriak ditu. Kalkulatu dute ikeritutako hamar erasotatik seitan irakasleren bat dagoela inplikaturik. Azken urteetan, gainera, kasuak biderkatu egin dira: 2012tik 2016ra 36 kasu erregristatu ziren, eta 2017tik 2018ra 107.

Hori dena, noski, kontuan hartu gabe salatu gabeko kasuekin zifra askoz ere altuagoa litzatekeela.

UNIBERTSITATEAREN OKUPAZIOA

Hala, unibertsitate barneko jazarpen maila ikusita, hainbat emakumek eta talde feministak batzar ez-misto bat antolatu zuten urrian. Hor adostutako protestara UNAMeko 39 egoitzetatik 11 batu dira. UNAMeko batxilergoko zentroak ere gehitu dira, eta beraz, adin nagusiko emakume unibertsitariei 15 eta 18 urte bitarteko gazteak ere bat zaizkie.

Protestak Mexikoko estatuko campus batean du jatorria. Mexikoko Hiria inguratzen duen entitatea da hori, eta beraz, hiriaren periferia. Eskualde hori ezagun egin da emakumeen kontrako bortizkeriaren zigorgabetasunak Ciudad Juárez-ekoa gainditu duelako. Han-



go ikasleek irakasle eta ikasleen kontra pilatutako 77 salaketak kontuan hartzeko exijitu zuten. Denbora gutxian, zerbait egiteko beharraren gogo irmoa zabaldu da, eta greba mugagabeak lehertu dira, bederen zuzendari estaltzaileak, genero perspektibarik gabeko abokatuak, eta langile axolagabeak kaleratu arte.

Filosofia eta Letren fakultateak hilabetea egin du okupatuta, eta han diren emakumeak prest daude haiek nahi dutena lortu arte ez etsitzeko. Azaroaren 5etik beste fakultateetako kideekin antolatuta dira, eskakizunak eta estrategiak eztabaidatu eta arazoaren larritasuna ikustarazteko. Haatik, mugimendua hasi zenetik etengabeko jazarpena jasan dute beste fakultateetako ikasleen partetik, eraso fisikoak eta bortxaketa mehatxuak barne. Institutuzioa bera ere oldartu zaie. Askotan salatu dute gauean gertatzen direla ondorengo gertakari arraroak: arrazoirik gabeko sute alarmak, pertsona ezezagunen bisita eta oihuak, argazkiak ateratzen dizkieten ezezagunak, eta abar.

ELKARRIZKETARIK EZ

Fakultateko zuzendariarekin izan duten azken bileran, argi utzi dute bilkura ez dela elkarrizketa bat: bera entzutera datorrela, eta inolaz ere ez negoziatzera.

Unibertsitateko egoera hobetzeko hainbat proposamen landu dute, esaterako, hainbat pertsonaren kaleratzeak eta ikasketa planen aldaketak, perspektiba feminista duten ikasgaiak txertatzeko. Era berean, unibertsitate barnean politikoki antolatzeko espazio autonomo eta ez-mistoak eratzea proposatu dute, baita

egiten ari direnagatik jazarriak ez izatea, eta egin dituzten pintaketa eta muralak mantentzea ere. Fakultateko zuzendaria eskari horietako batzuk onartzeko prest agertu da, eta horrek ez du mugimendua asebate. Badirudi okupazioak aurrera jarraituko duela, mobilizatutakoek seihilekoa galdu arren.

Fakultateko
zuzendariarekin izan
duten azken bileran,
argi utzi dute bera
entzutera doala, ez
negoziatzera

Antolatzeko modua egitura batetik harago doa. Esan daiteke intuitiboagoa dela, ez duela protokolo zehatzik jarraitzen, eta eginaren eginaz sortzen dela. Zentzu horretan, agintariak zailtasun gehiago dute jakiteko zer egingo duten mobilizatutakoek eta zer ez, zailagoak dira kontrolatzen.

PARETEK SALATZEN DUTENA

Mobilizatutakoak baino helduagoak diren emakumeek mahaigaineratu dute: "Zergatik ez da ekin orain arte? Arazoa beti egon



izan da hor, eta hori denok dakigu, baina zer aldatu da oraingo ekintzen eta iragane inbisibilizazioaren artean?" Haietako batek eman du erantzuna: arazoaren dimentsioaz ezjakintasuna. "Aurreko urteetan bagenekien hau gertatzen zela, baina inoiz ez dugu eduki egoeraren ikuspegi osoa. Horri dagokionez, arazoa adierazteak eta izendatzeak aldaketa handia ekarri dute: norbanakoen arazotzat jotzen zenak, izaera politikoa erakutsi du".

Abortatu zure unibertsitate harrotasuna. Paretak garbitu daitezke, hildakoak ez dira itzuliko. Beldurra digute, ez dugu-lako beldurrik. Ez dute inoiz gehiago gure isiltasunaren erosotasuna edukiko. Orain feminismoa irakurtzen dute, baina betiko berak dira. Ez lurra, ezta gu ere, ez gara konkistarako lurraldeak. eta UNAMEk babesten zaitu, guk salatzen zaitugu... gisa-ko leloekin adierazten dute haien jarra mobilizazioetan parte hartzen duten emakumeek.

Hala, Latinoamerikako unibertsitate handienaren paretak adierazten dute zuzendariak isilarazten dutena. *Tendedero* bezalako praktikak –ikusgarritasun handia duten paretak erasotzaileak salatze-ko erabiltzea– beharrezkoak bilakatu dira arazoaren larritasuna azaltzeko, eta urte luzez sekretupean gordetakoa mezu komunikatibo bilakatu dute. Horrek, unibertsitate entzutetsuan nagusi zen isiltasunak erasotzaileari eragindako erosotasuna erazteko balio izan du. Hala, emakume taldeek egunero erabiltzen dituzte pintaketak, pankartak, eta abarrak egunero unibertsitateak ezabatu eta zuritzen duen jazarpena salatze-ko eta borrokatze-ko.



UNAMen gertatzen ari denak Mexikon gertatzen ari dena islatzen du: hemen indarkeria matxistak inbaditu gaitu, eta hemen hildakoek, desagertuek, bortxatuek eta jazarriek monumentu garrantzitsuek baino balio txarrago adute. Izan ere, azken horri helduta, Indarkeria Matxisten Kontrako Egunak erakutsi du erakundeei

eta estatuari gertatzen ari denaren zantzuz oro ezabatzea interesatzen zaiela, eta haien lehentasunak azaleratu ditu. Egun hartako manifestazioan –beste behin ere– hiriko monumentu historikoen gain esku hartu ostean, Mexikoko Hiriko gobernuburu ohi Marcelo Ebrardek egungo gobernuburu Claudia Sheinbaum zorion-

du zuen: ordu gutxitan, garbiketa eta berriztatze lan eraginkorrei esker orbanga-be zeudelako. Bitartean, egun horretan 14 emakume gehiago hil zituzten.

AHIZPATASUNA BAI, BELDURRIK EZ

Gobernuaren axolagabekeriaren aurrean, eta hiriko segurtasuna hobetzeko kalera polizia gehiago bidaltzearen aurrean, jazarpenaren arazoari aurre egiteko beste moduak lantzen ari dira, botere hartze klasikoaz oso bestelako borrokak. Ikasle eta ikasle ez diren guztien borroka bizi-tzaren aldekoa da. Ikasleen antolakundeen mugak gainditzen ditu. Emakumeen borroka egunerokoa da, existentziaren esparru asko barnebiltzen du, eta horretan datza bere indar-gunea.

Azaroaren 25eko manifestazioan emakume heldu batek haserre oihukatu zuen: “Eskola barnean eta kanpoan hiltzen dituzte gure alabak. Nahikoa da, kideok. Haserre gaudela ikusten badute, nola arraio ez naiz egongo haserre? Dena erre nahi dut! Nire alaba hil zidaten!”. Amorrua eta gogaitasuna Mexikoko emakume guztiok zeharkatzen gaituen sentimenduak dira. Alabak, amak, lagunak eta ahizpak galdu ostean, zer axola digu beldurra galtzeak? ●

A2

Bidasoatik Euskal herri osora

Ertzaintzak Brasilen entrenamendu militarrik jaso ditu

Rio de Janeiroko polizia militarreko eliteko kideekin entrenatu diren Espainiako Estatuko polizien zerrenda argitaratu du La Directa hedabideak. Ertzaintzako bi agente han izan ziren, trebakuntza militarra jasotzen giza eskubideak urratu izanagatik salaketa ugari jaso duen unitatearen eskutik.

ABEL ZATARAIN

La Directa hedabideak eskuratu duen dokumentuak frogatzen du 2018ko uztailean Espainiako Estatuko Polizia eta militar talde ugaritako 21 agentek bederatzi eguneko instrukzioa jaso zutela Brasilgo Polizia Operazio Bereziatarako Batalioiaren eskutik (portugesezko sigletan BOPE).

Horien artean daude, besteak beste, sei Esquadra Mosso, Espainiako Lurreko Armadako sei kide -Operazio Bereziatarako taldeko hiru kide, bi soldadu eta sarjentu bat-, Itsas Armadako Infanteriako soldadu bat, bi udaltzain [ez du zehazten nongoak], bi ertzain, Espainiako Polizia Nazionaleko agente bat, aduana-zaintzako agente bat, udaltzaingoko inspektoreorde bat [ez du zehazten nongoa] eta [Bartzelonako] goardia urbano bat.

Barne-dokumentu bat da eta Espainiako armadako eta segurtasun-indarretako kideek atzerrirako teknika militarretan instrukzioa jasotzen dutela ziurtatzen du.

Honela deskribatzen du zer den BOPE La Directako Nil Ribot kazetariak: "BOPE Rio de Janeiroko faveletan izua eragiten duen erakundea da, eta han beraiek egin dituzten hilketak eta giza eskubideen urraketak Amnistia Internazionalak eta beste erakunde batzuek behin eta berriz salatu dituzte".

BOPE batalioiaren ikurra beldurgarria da: bi pistola gurutze bat osatzen dute, horren gainean garezur bat dago eta labana bat honi sartuta. Kide gehienak fededun ebanjelikoak dira, eta beren buruari "Kristoren garezurrak" deitzen diote, eta 2019ko urtarrilaz geroztik Brasilgo presidente Jair Bolsonaro ultraeskuindarraren garaipena bultzatu duen mugimenduaren parte dira. Gobernu aldaketaren aurretik, 13.387 lagun hil zituen Poliziak 2013 eta 2017 bitartean, Rio de Janeiro estatuan bakarrik. Favelen



aurkako setioa areagotu egin da Bolsonaroren kordako gobernadore berria iritsi denetik, Winston Witzel epailea. "Narkotrafikoari aurre egiteko" frankotirtzaileak eta metrailadorez hornitutako droneak erabiltzea proposatu du.

La Directak publikatu duen dokumentuak BOPEko buru Marcelo de Castro Corbageren sinadura darama. De Castro prozesatu eta BOPetik kanporatu zuten 2015ean, operatibo batean legez kanpo diru kopuru erraldoia lapurtu ziotelako Brasilgo narkotrafikatzaile-talde bati. Gero, absolbitu egin zuten, Polizia erakundera itzuli zen, eta Rio de Janeiroko Udalak saritu egin zuen joan den ekainean.

Eliteko tropa honen gainean dabilen susmoetako bat da, ea zenbaterainoko parte-hartzea izan zuen Marielle Franco aktibista feministaren hilketan. Hainbat lekukok adierazi izan dute BOPEko polizia-ohi bat izan zela, 2018ko martxoaren 14an, ekintzaile soziala tiroz hil zuena, Espainiako polizia eta militarren bidaia baino lau hilabete lehenago.

Hau ez da Espainiako agenteek BOPErekin duten lehen hartu-eman. Sarean bilaketa bat egitea nahikoa da aurkitzeko beren uniforme militarretan Espainiako banderak dituzten poliziak BOPEren egoitzan ateratako argazkiak. ●

STM

San Telmo Museoa

GABONETAN OPARITU MUSEOA!



15€
urte



EUSKAL GIZARTEAREN MUSEOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

PENTSIOAK

Macronen pentsio sistemen erreforma: sektore publikoa desegiteko beste urrats bat

Abenduaren 11n aurkeztu du Frantziako lehen ministroak pentsio sistemen erreforma. Puntu bidezko erretreta sistema gauzatuz eta kapitalizazioari bidea irekiz, orain arteko modeloaren bukaera aurreikusten dute langile sindikatu gehienek. Erreformaren aurkako mobilizazioa indartsu abiatu dute, bi aldiz greba orokorra burutuz, abenduak 5 eta 10ean.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN

Emmanuel Macron Frantziako presidentearen pentsio sistemen erreforma egitasmo orokorrako baten baitan dagoela deitoratu zuten abenduaren 5eko greba orokorraren kari, Baionan burutu manifestazioan: “Lan Kodea, funtzio publikoa, zerbitzu publikoak, langabezia aseguru eta orain pentsioak... guztia gogorki erasotzen dabil Macron, desberdintasun sozialen emendioa areagotuz”. Pentsio sistemen erreformaren kontrako mobilizazioaren lehen eguna izan zen abenduaren 5ekoa. Lehena, baina ez azkena: greban segitzearen alde bozkatu dute hainbat sektoretako langileek, tartean, SNCF tren konpainiakoe edota RATP Paris inguruko garraio publikoetakoe. Lizeo eta unibertsitateetan ere martxan da mugimendua. Abenduaren 10ean bigarren greba eguna burutu dute, eguna manifestazioz eta blokeoz josiz.

Aste hastapenean sindikatuekin bildurik, erreforma aurkeztu zuen asteazkenean Edouard Philippe lehen ministroak. “Konfrontaziorik gabe” baina “fermuki” gauzatu nahi duena. Alta, desadostasuna hor da eta izanen dira berriaz grebak –agian mugagabeak–, blo-

keoak, manifestazioak eta forma berriko ekintzak. Azken urte honetan Jaka Horiak autonomoki garatu mugimendua eta sindikatuek erreforma horri buruz bideratu borroka juntatzea izanen dute aurka daudenek erronka. Gobernuaren determinazioa ikusita, denboran iraunen duen mugimendu masibo eta azkar bat ezinbesteko ukanen dutelako borroka irabazteko.

“Modernitatearen” eta “transformazioaren” izenean, hainbat erabaki eta neurri hartuak ditu jada Macronen gobernuak, guztiak norabide berean doazenak: zerbitzu publikoen desegitera. Pentsio sistemen erreformarekin, “aberatsen presidentea” izengoitiarekin izendaturiko Macronek oliaoa bota dio beste behin ere Frantzia sendi den haserre sozialaren suari. Abenduaren 5ean burutu lehen mobilizazioan 1,5 milioi manifestari kontatu izana (806.000 lagun Barne Ministerioaren kontaketai segi) adierazgarria da. Belaunaldien arteko elkartasunean oinarrituriko erretreta sistema mantentzearen aldeko mugimenduak negua berotuko duela aurreikusi daiteke. 10.000 lagun elkartu ziren abenduaren 5ean Baionako karriketan,

CGT, FO eta FSU arteko intersindikalak eta LAB, CFE-CGC, Solidaires eta Unsa Education sindikatuek deiturik. Azken urteetako manifestaziorik jendetsuena, antolatzaileen arabera.

Biharko erretretak segurtatzeko, puntu bidezko sistema bat martxan jarriko du Macronek. Langileak puntu batzuk bilduko ditu bere lan bizitzan zehar, eta erretretara heltzen denean, puntu horiek euro bihurtuko dira, indize baten arabera. Nahiz eta gobernuak segurtatu balio finkoa ukanen dutela puntuek, berez ez da horretara behartua izango. Egoera finantzarioa orekaturik mantentzeko helburuari segi, puntuaren balioa apaltzen ahalko luke gobernuak. Puntuak erretretara sartzeko urtean daukan balioaren arabera pentsioa ukanen du erretretadun berriak.

Kriterio horren giblean gordetzen den errealtatea argitu zuten Baionako manifestazioaren bukaerako hitzartzean: “Puntuaren balioa momentuko gorabehera politiko eta ekonomikoen arabera izango da, burtsako krisiaren arabera, Nazioarteko Diru Funtzaren arabera eta Europar Batasunaren politika ultra liberalaren arabera”.



ABENDUAREN SEKO GREBA OROKORRA. 10.000 LAGUN BATUZ, AZKEN URTEETAKO MANIFESTAZIORIK JENDETSUENA BURUTU DUTE BAIONAN.

PENTISIO APALAGOAK, BAI ALA BAI

Pentsioen apaltzea ondorioztatuko luke erreformak. Lege proposamenaren oinarrian dagoen Delevoye txostenean irakurri daitekeenez, erretiretei bideratu dirua Frantziaren BPGren %14ra mugatuko du Gobernuak. Jakinda datorren urteetan pentsiodunen kopurua azkarki emendatuko dela, bai ala bai apalagoa izanen da bakoitzari bideraturiko pentsioa. Erreforma azaltzeko orduan, ondoko irudia erabili ohi dute aurkariak: pastel berarentzat jale gehiago baldin badira, partekatze-rakoan, bakoitzaretzako pastel zatia txikiagoa izaten da. Laburbiltzeko, “elkartasun gutxiago eta pobrezia gehiago”, sindikatuen hitzetan. Gainera, pentsioa kalkulatzeko erreferentzia urteak ere aldatuko dira: pribaturako hogeita bost urte hoberenak eta publikorako sei hilabete

hoberenak hartu beharrean, urte guztiei begiratuko zaie. Erretireta heinaren apaltzea eragingo du horrek ere. “Lanbideko gorabeherak, langabezia garaia, lan kontratu partzialak gogor ordainduko dira erretiretaren orduan”, CGT, FO eta FSU sindikatuen arteko intersindikalararen arabera. Pentsio duin eta bizigarri bat ukateko bide berriak irekiko

“
**Erretireta kutxen
pseudo-defizit hau
nagusiki dator pentsio
sistemari bideraturiko
baliabideen
gutxitzetik”**

ATTAC elkarte

ditu Frantziako gobernuak: izango da aukera, baldin eta norberak bere buruarentzat dirua baztertzen badu. Hain zuzen, kapitalizazio sistema osagarri bati irekitzen dio bidea erreformak.

Erretireta hartzen duenerako dirua gordetzeko aukera ukango du aktiboak. Oraingoz, aberatsenei mugatua da banaketa sistematik atera eta kapitalizazio sistemara pasatzeko aukera –hilabetean 27.000 euro gordin baino gehiago irabazten dutenei–, baina erreformarekin muga hau apalduko dute

(10.000 euro gordineko hilabete sarira, Delevoye txostenaren arabera), langile gehiagori irekiz posibilitatea.

KAPITALIZAZIOAREN ARRISKUA

Baliteke ondoko urteetan muga hori oraindik gehiago apaltzea eta beraz kapitalizazio sistemak elkartasunean oinarrituriko sistema ordezkatzeko, edo behintzat banaketa-sistemaren osagarri izatea –dirua baztertze ahala dutenentzat, noski–. Argi dena da, pentsioen kutxara bideratuko den dirua gutxituz joanen dela, aberatsenak ez kotizatze-ko aukera ukanen dutelako. Kotizazio tasa %2,8koa izango dute, soldata apalagoen ordea %28koa ukanen duten bitartean.

Bestalde, erreformak eragingo duen araubide berezien bukaera izaten da erreformaren aldekoen argumentu nagusia. Gaur egun, berrogeita bi pentsio kutxa ezberdin daude, kalkulu sistema ezberdinak dauzkatenak eta pentsiodunen artean ezberdintasunak ondorioztatzen dituztenak.



ARAU BIDE BEREZIEN BUKAERA

Errealitate "ezin ulertua eta desorekatua" Macronen hitzetan. Guztiak desegin eta bakarria sortuko du erreformak. Haatik, aldaketa "trantsizio progresiboan" egingo duela hitz emana du. Hain zuzen, badaki araubide berezi horiek dituzten sektoreetan jarraitua eta eraginkorra izaten ari dela greba mugimendua. Adibidez, SNCF tren konpainian zein RATP garraioetan. Pentsio sistema bakarria ezartzeari dagokionez, kontrako argumentuak plazaratzen dabilta aurkariak. "Askok uste dute erreforma hau araubide berezien bukaerara mugatzen dela. Alta, erreformaren zati txiki bat baizik ez da hori. Gainera, langileen %3a dira soi-

lik araubide berezi hauetan", Regis Nos Retraites kolektiboko kideak azaltzen duenez. Ezberdintasun sozialak txikitze bidean aldaketa hau interesgarritzat baldin badauka ere, gaur egungo pensio sistema atxikiz egin daitekeela dio. Erreformari esker, erretretadun guztiek gutxienez 1.000 euroko pentsioa ukango lukete, Frantziako Gobernuaren hitzetan. Gutxiengo pentsio hau gaur egungo sistemarekin ere finkatu daitekeela dio. "Komunikaziorako elementuak dira... ez da hori erreformaren funtsa".

Bi neurri hauek begi onez ikusirik, sostengua adierazi dio erreformari laborarien FNSEA sindikatuak eta desadostasun argirik ez du oraindik plazaratu CFDT sindikatuak. Abenduak 5 eta 10eko greba orokorrera ez zuen deitu azken horrek. Ipar Euskal Herriko ELB barne duen Confederation Paysanne nekazarien sindikatua haatik aurka agertu da: "Elkartasunean eta zuzentasunean oinarrituriko pentsio sistema baten alde gaude, zeinetan bakoitzak bere ahalein arabera kotizatzen duen eta bere beharren arabera jasotzen duen".

DEFIZITAREN EGIAZKO ARRAZOIAK

Pentsio sistema defizitarioa izaki, "oreka finantzarioaren lorpena" garrantzitsutzat dauka Gobernuak. Ofizialki, hori du

helburutzat erreformarekin. COR Pentsioen Orientazio Batzarrak azken txostenaren arabera, txarrean 17,2 miliar euroko zuloa izango du 2025. urterako; hoberenean, 8 miliar eurokoa. Analisi hau gezurtatu du, ordea, ATTAC elkarteak, gehituz zuloa desagertu daitekeela beste politika bat gauzatuz gero. "Pseudo-defizit hau nagusiki dator pentsio sistemari bideraturiko baliabideen gutxitze-tik. (...) Eta, gutxitze hau funtzionarioen murrizketa handiagatik, konpentsatuak ez diren kotizazio sozialen apaltzeagatik eta langabeziaren ardura duen Unedic-ek eta CNAF Familia Alokazio Kutzak transferitu diru zamaren gutxitzeagatik dugu". Bestelako aterabideak ere daude, gainera: 30 miliar euroz gora ditu Erretretentzako Erreserba Fondoak. Zuloa izanez gero diru hori bideratzeko ideiarekin sortu zuen fondo hori 1999ean Alderdi Sozialistako Lionel Jospinen gobernuak.

Banaketa sistema utzi eta kapitalizazio sisteman sartzeko aukera ukanen dute langile gehiagok

Gobernuak hala erabakirik, Jaka Horien kexua baretzeko bozkatu neurriek ere zuloa areagotu dute. Kotizazio sozialak apaltzeko erabakia hartu zuten (besteak beste, ordu gehigarrien gaineko karga sozialak desagerraraziz eta pentsio apaldunei CSG deitu ekarpena ez emendatzeko erabakia hartuz).

1994eko Veil legeari segi, kotizazioen apaltze edota desagertzearen konpentsazio integrala segurtatu behar du Estatuak, Gizarte Segurantzak eskasirik ez pairatzeko gisan. Horrelakorik ez egitearen alde bozkatu zuten urrian diputatuak, senatariek aldiz Veil Legearen gauzapearen alde bozkatu zuten azaroan. Abenduaren 3ko azken bozketari segi, ez du konpentsaziorik egingo Estatuak. Gizarte Segurantzako Kontuen Batzarraren kalkuluen arabera, 2,7 miliar euroko zuloa ondorioztatu dute bi neurri horiek (2019eko defizitaren erdia). ●

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

Martxoan abiatu zuten greba ospitale publikoetako langileek, murrizketa politiken aurka

Bederatzigarren hilabetea greban, hiru aldarrikapen eta gortasuna parean". Horra nola laburbiltzen duen egoera Pierre Schwob Tellier Inter-Urgences kolektiboko kideak. Astez aste, mobilizazioz mobilizazio, martxoan Parisko ospitaleko larrialdietatik abiatutako greba mugimendua zabalduz joan da beste zerbitzu eta hirietara, tokian toki, greba mugagabea edo puntuala martxan jarritz. Adibidez, zahar etxeetako langileak zein medikuak lotu zaizkio mobilizazioari. Baionako ospitale publikoan ere protestan daude eta abenduaren 5eko greba orokorrarekin bat egin zuten: harri batez bi txori, pentsio sistemaren erreformaren kontra eta dituzten aldarrikapen propioen alde egiteko. "Gobernuaren neurri eta diskurtsoek ez diete gure beharrei erantzuten", dio Thomas Cabrone Baionako ospitaleko erizainak. Konkreteki hiru aldarrikapen dituzte: lanpostu gehiago, pazienteentzako leku gehiago eta soldaten igoera. Hots, kalitatezko zerbitzu publikoa mantendu ahal izateko baldintzak.

"Errantagarritasunari begira dago Macron, gu aldiz, eriei so gaude: haien egoera ekonomiko eta soziala edozein izanda ere, guztiak artatu nahi ditugu, artaren kalitatea bermatuz. Hau da gure bokazioa", Cabroneren hitzetan. Hogeitaz, 100.000 ohe kentzeaz gain, amaetxeen %50a eta 95 larrialdi zerbitzu hetsi dituzte gobernuak. Hamar urtez, 8,4 miliar euroko murrizketa pairatu dute, aurrekontuaren %10 heina. Are erritmo azkarragoan dabil zerbitzu publikoa murrizten Emmanuel Macron presidentea. Hauteskunde kanpaina hitz emandako "Estatuaren modernizazioa" zerbitzu publikoen murrizketarekin gauzatzen dabil. Politika horren emaitza ezin argiagoa da ospitaleetan: eriak igurikagelan eta pasabideetan metaturik eta erizain geroz

eta gehiago nekaturik, gauditurik eta *burnout* sindromeak jota.

Azaroaren 20an Edouard Philippe lehen ministroak aurkeztu neurriek ez dituzte grebalariai asebate: postu berriak ez, erientzako leku gehiagorik ez eta hilabete sariari dagokionez "mespretxuaren isla diren prima batzuk han eta hemen" (ez ordea aldarrikaturiko 300 euroko emendiorik). Prima horiek lansaritik kanpokoak izateaz gain, ez dira erretreta sistemaren barruan kontuan hartuko, eta edozein momentutan moztu ahalko dituzte. Gainera, ospitaleko langile guztiek ez dute prima hori jasoko: medikuntza zerbitzuko agenteek adibidez ez dituzte eskuratuko, alta, horiek dira kontratu labur eta lansari apalenak dituztenak. Egoera finantzarioa hobetzeko neurriak ere hitz eman ditu Philippek: gobernuak, 2020. urtetik aurrera, guztira 1,5 miliar euroko aurrekontua irekiko du ospitale publikoentzat, hots, 500 milioi euro urteko. Ospitale publikoek daukaten zorraren herena —10 miliar euro— bere gain hartuko du Estatuak. Langile intersindikalararen arabera ez da nahikoa eta greba eta mobilizazio eguna ukanen dute berriz ere abenduaren 17an.

ATERABIDEA: PRIBATURA EDO SU-HILTZAILLEETARA

Osasun zerbitzu publikoak ezin duenean bere misioa bete, bi bide dituzte eriak: pribatura jotzea —ahalmen ekonomikoa ukanez gero—, edo suhiltzaileen zerbitzura jotzea —pribatuan ez bezala, kitorik dakartelako arta—. Justuki, suhiltzaileak ere greban daude, maiatzaz geroztik. Urriaren 15ean protesta egun bateratua burutu zuten ospitaleetako langileekin batera. Emendatuz doazen eskaerei erantzun ahal izateko beharrezko dituzten baliabideak geroz eta murriztagoak dituzte suhiltzaileek ere. Lan karga eta balia-

bide eskasak deitoratzen dituzte horiek ere. Baina ez dute erantzun baikorrik jaso: "Areagotuz doa haserre eta erantzunik gabe dauzkagu aldarriak", CGT, FASPP-PATS, FO-SIS,CFDT-SDIS, UNSA-SDIS, SPASDIS-CFTC, Avenir Secours eta CGE-CGC artean osatu intersindikalararen hitzetan.

Lanbidearen arriskua kontutan hartzen duen erregimen berezia ere desagertzekotan dute pentsio sistemaren erreformagatik. Abenduaren 5 eta 10eko greba orokorretan parte hartu dute. ●





**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

BILBOKO BORDATXO JATETXEARI SARIA

Aitortza, euskaraz bizi nahi duen jatetxeari

Jatetxe euskalduna da Bordatxo. Euskaldun berriak dira jabeak eta euskara nabarmentzen dute kartan eta bezeroarekiko tratuan. Bilbon, eta Deustu auzoan, ez dira asko izango horrela jokatzeko duten ostalariak. Hala, Bordatxo jatetxean azken bi hamarkadetan egindako lana aitortu eta saritu du Bai Euskarari elkarteak.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Bizkaiko hiriburuak nazioarteko erakusleihoan txoko esanguratsua hartu du eta turistaren joan-etorriak mugarik gabeak dira. Hala ere, makina bat elkarte, lagun-talde eta komertzio, soldatapean nahiz musu-truk izanda ere, euskararen normalizazioan lanean ari dira. Aitortza egitea hauentzat funtsezko bultzada eta aupada izaten da sarritan, eta hala iruditzen zaie Bordatxo tabernaren jabe diren Estitxu Lezea eta Gorka Ganboari. Sariak zuzeneko ekarpen ekonomikorik ez diotela ekarriko uste arren, lanean jarraitzeko beste motibo bat dela adierazi dute.

“Lehenik sorpresa handia izan zen guretzat, baina beste ikuspuntu batetik aztertuta, esan genezake ez dugula konpetentzia handirik izan, hirian ez gaude-eta horrenbeste komertzio euskaldun. Kafe Antzokiaz eta herriko tabernez gain, zenbat gara bada?”, dio Ganboak. Sariaren garrantzia, baina, Bilboko egoera soziolinguistikoan dagoela dio. Alegia, sariak ez lukeela zentzu bera izango Gernikan izango balute taberna.

“AEK-kumeak” direla diote harro-harro, lehenengotariko belaunalditakoak gainera. Lezearen kasuan, derrigorrezko ikasketak amaitu eta nerabea zela ekin zion euskara ikasteari, ordura arte

gastelaniaz baino ez zelako hezi. Hargatik egin zuen euskalduntzeko hautua, funtsezkotzat jotzen baitzuen euskaraz jakitea Euskal Herrian bizitzeko. Ganboa, bestalde, familiak bultzatuta sartu zen euskaltegian. Aiton-amonek euskaraz bazekiten, baina gurasoek ez zuten ikasi, eta mozketa hari akabera jartze aldera 9 urte inguru zituela hasi zen euskara ikasten: “Euskaltegian sartu

ninduten, baina gero nik erabaki nuen euskalduntzea; ondorio logikoa zen”. Orduz geroztik euskaraz bizi dira han eta hemen, ofizioan, etxean zein kalean.

Bilbo inguruan euskaldun gehienek ezagutzen duten lekua da Bordatxo. Nor-tasuna du jatetxeak, balio zehatzak hauspotu nahi ditu. Auzoan ere murgildu dira halako eta bestelako ekarpenak eginez, jaietan auzo elkarteari laguntza eskainiz



eta ekintzetan parte hartuz. Horrez gain, lehen unetik euskarak presentzia handia izan du negozioan, baina jatetxeaz harago, negozioaren beste alorrak euskarazkoak izaten ahalegindu dira. Neketsua izan zaie zenbaitetan: hornitzaileekin hartu-emanen, adibidez. “Ulertzen dut Galiziako hornitzaile bati eskaera bat egiten badiot ordainagiria gaztelaniaz edo galegoz bidaltzea, eta horregatik, Espainiako Estatuan aritzen direnei baino, bertakoei eskatu behar diegu tratua euskaraz izateko”, diote. Horiei ordaingiriak zein produktuak euskarazko etiketarekin bidaltzeko eskatzen diete, eta egiten ez badute, kafearen eta azukrearen kasuan adibidez, euskaratzeaz arduratu izan dira jabeak.

“Jakin badakigu urteotan guztiotan erreferentzialtasuna irabazi dugula, eta sari hau jasotzea pozgarria da, baina are pozgarriagoa da zerbitzatzen ari zaren hamar mahaitik zortzi euskaraz hitz egiten entzutea”, dio Lezeak. Euskaraz zerbitzatu arren, errealtateari ezin die muzin egin. Ez da jende euskaldunera soilik mugatzen den jatetxea, are gehiago, Lezeak adierazi duenez, bezeroek euren artean gaztelaniaz hitz egin arren, kafeak euskaraz eskatzeko ahalegina egiten dute: “Badakite hau Bordatxo dela, hemen euskaraz egiten dela, baina arrotz sentitu gabe, euskaraz eskatzen dute eta eskertzekoa da”. Deustuko Unibertsitatetik gertu dago eta ikasleak joaten zaizkie. Ikasleak, batzuetan, irakasleekin joaten dira euskaraz praktikatzeko asmoz.

TURISTEN NOBEDADE

Turistifikazioa urte osora zabaldu da Euskal Herriko hirietan eta zenbait herritan. Bilbo bisitatuena ez bada, bisitatuenetakoa izango da eta, hargatik, komertzio asko eta asko turisten nahietara bideratu dira. Ez da kontu berria. Zentzu honetan, nortasuna alderatu eta Bilboren internazionalizazioa etorri da: “Begiak ixten badituzu, ez dakizu non zauden ere: egon zaitezke Bilbon, Madrilan edo Londresen”. Hirien nortasuna eta bertakotasuna galtzen ari dela dio Lezeak, batik bat taberna eta jatetxeen munduan. *Basque* jartzea ez dela aski dio, ondoren betiko produktuak eskaintzen badira eta produktu horiek bertakotik ezer ez badute: “Gero eta frankizia gehiago dago Alde Zaharrean, eta horietan guztietan jateko bera eskaintzen dizute hemen, han eta munduaren beste puntan, eta hala, hor-



GORKA GANBOA ETA ESTITXU LEZEA DIRA BORDATXOREN JABEAK. Pozik daude Bai Euskarari elkarteak emandako sariarekin. Jatetxeak euskaraz funtzionatzen segitzeko asmo tinkoa dute biek.

nitzaile berak funtzionatzen du toki guztietan”.

Turistekin makina bat pasadizo izan dute azken urteotan: jatetxe ondoko frontoian zesta-puntan jolastan aritu dira zenbaitekin, adibidez. Alabaina, Lezeak adierazi duenez, den-denek harrituta-edo argazkiak ateratzen dizkiote jatetxeari, lekuaren estetika medio: “Normala da, hiru egun egon dira Bilbon, baina euskara

eta Euskal Herria ez dituzte ezagutu”. Karta euskaraz ikustea ere ezezagun-tzat hartzen dutela diote, ordura arte sekula ikusi izan ez balute bezala. Izan ere, kasik ez da taberna edo jatetxerik lehen lerroan euskara jartzen duenik: “Lehenago egongo dira gaztelania, ingelesa eta frantsesa, ez euskaldun egiten gaituen euskara”. ●

“
**Sari hau jasotzea
pozgarria da, baina are
pozgarriagoa da zerbitzatzen
ari garen hamar mahaitik
zortzi euskaraz
hitz egiten entzutea”**

ESTITXU LEZEA
BORDATXOREN JABEA

KURKUBIA ETA ERLASTARRAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Umetako oroitzapena dut nola “txi-toa” deitzen genion. Loreak oilo txitaren burua gogora ekartzen zigun. Jose Maria Lakoizketak 1888an Bertizaranan jaso zuen “kurkubia” izena, kurkubi edo botilatxo baten antza duelako bere fruitutxoak. Bortzirin “kaskabila” esaten diotela dio. Javier Irigarayk 1976an, Gesalazko ibarrean, “boka-perro”, “kañamera” eta “zubiel” izenak jaso zituen. *Rhinanthus mediterraneus* da. Euskal Herri osoan eza-guna den urteko landare belarkara. Belazezalea da, batez ere lehor antzekoak direnenak; harritsuak direlako, azpian karaitza dutelako, ezpondak, malkarrak eta bide bazterrak...

Paisajista da kurkubia, paisaiaren ingeniaria, paisaia sortzen du. Paisaia anitz horren polinizatzaile gehiago eta desberdinak erakarriko ditu.

Umetan lorearen formak bezala atenzioa ematen zigun beste ezaugarri bat badu landare honek. Belazeko eta bazterretako loreekin sortatxoak egiteko ohitura bagenuen orduan, eta landarea ipurditik mozteko tira egiten genionean ume-txintzarri baten tankerako soinu egiten zuen. Kurkubi edo botila itxurako fruituaren barruan dituen haziak dantzatzean egiten du txintzarri soinu hori. Hortik kaskabila izena.

Kurkubia zegoen belazeetan lore eta landare aberastasun handiagoa zegoela gogoan dut. Belar berde luzeen diktadurapeko belazeetan baino kolore eta testura ugariago zegoen kurkubi tokietan. Kolore festa. Ez da denbora asko jakin dudala kolore festa horren arrazoa. Eta beste behin, landare batek zoratzen nau, maite-zoratzen.



Kurkubia erdi parasittoa da, hemiparasittoa. Nahi edo ahal duenean parasittoa da, bizkarroia; hau da, aldamenean duen beste landare batzuei sustraietatik jakiak lapurtu eta haien bizkar bizi daitenke. Edo bere kasa behar dituen jakiak sortzen badaki. Belazean aldameneko belarrak jakiz hustuz ahultzen ditu eta ez dute bere diktadura ezartzen. Bestela haien hankapean lirakeen landare bereziak ederki garatuko dira, belazea aniztuz eta aberastuz. Paisajista da kurkubia, paisaiaren ingeniaria, paisaia sortzen du. Paisaia anitz horren polinizatzaile gehiago eta desberdinak erakarriko ditu. Kurkubiak berak polinizatzaile familia jakin bat behar du: *Bombus* generoko erlastarrak

behar-beharrezkoak ditu. Horiek egiten diote bisita eta polinizazioa burutu. Bisita nolakoa denaren arabera erlastar horiek bi multzotan banatzen dira. Erlastar nototribikoak (*B. pascuorum*, *B. horotum*, *B. ruderarius*, *B. veteranus* eta *B. muscorum*), hau da, burua lorean sartzen dutenak eta erlastar esternotribikoak (*B. terrestris*, *B. lucorum*, *B. hypnorum*, *B. pratorum*, *B. lapidarius* eta *B. jonellus*), lorera hurbildu eta hegoak astinduz polena harrotu eta biltzen dutenak. Batzuk zein besteak gusturago hurbilduko dira kurkubiaren eraginez lore eta landare mota gehiago dagoen belazera.

Umetan istorio hori baten batek azaldu izan balit... ●

SEMILLAS ELOSEGUI

HAZI DENDA BATEN ITXIERA
SINBOLO BIHURTZEN DENEANGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Semillas Elosegui ez degu marka makala / merezi du ta aitortzeko gaur hemen elkartu gerala / eta aurrrera hemen gaudenok opa baitiogu hala / auzo honetan poza ereiten luzaro jarrai dezala". 2014ko maiatzean Donostiako Parte Zaharreko hazi denda historikoaren mendeurren ospakizunean Unai Gaztelumendik botatako bertsoa izan zen hori. Geroztik bost urte gehiago egin ditu Semillas Elosegui, baina agur betean sartuta dago. Abenduan behin betiko itxi-ko ditu ateak Fermin Calbeton kaleko saltokiak, jabearen erretiroa dela eta.

HAZI GUTXIAGO ETA TURISTA
GEHIAGO

Donostian bultzatu den hiri ereduaren erakusle izan daiteke, alde batetik. Ez da Parte Zaharrean itxi den betiko lehen denda izan, eta gehiago ere etorriko dira seguraski, gauzek berdin jarraitzen badute behintzat. Kaleak bizilagunek baino gehiago turistek betetzen dituztenean, bertako auzokideentzako denda eta gu- neek ere geroz eta toki gutxiago dute, nahitaez. Haziera proiektuko Marc Badalek argi du denda ixteko arrazoiak jubilazioa izanda ere, atzean hori baino gehiago ere badagoela: "Lehen bazegoen beste hazi denda bat, Semillas Mocoroa, eta hura ere itxi zuten. Kasu honetan jabea jubilatzen da, baina atzean dagoena zerbait estrukturalagoa da".

Baserriaren eta nekazaritzaren galera gertatzen eta hazien ekoizpena eta



DANI BLANCO

salmenta are gehiago monopolizatzen ari diren honetan, zer toki dute Semillas Elosegui bezalako dendek? "Lehen baserritarrak Donostira saltzera joaten ziren eta bertan haziak erosteko aprobe- txatzen zuten, abereentzat edo zelaietan ereiteko. Lehen sektorea guztiz aldatu da, eta urteotan negozioa moldatzen joan bada ere, bere zentzu originala gal- du du", dio Badalek.

CRISTINA ENEAKO HAZIERATIK
AZKEN BISITA ETA OMENALDITXOA

25 pertsona inguru hurbildu dira abenduaren 3an Cristina Enea Fundazioko Haziera proiektutik Semilla Elosegui

dendara antolatu duten bisita eta agu- rrera. Gunea beteta, dendariarekin hiz- ketan aritu dira tarte luze batez. "Hur- bildu direnek ere esaten dute hiria nortasuna galtzen ari dela azken urtee- tan". Hiri ereduaz gain, hazien monpoli- zazioaren inguruan ere solastu zaie den- daria. "Kontatu digu nola duela 30-40 urte hazien enpresek merkatu nahiko lokal eta erregionala zutela, Iruñetik edo Arabatik ekartzen zituzten hazi gehie- nak". Gaur egun, multinazional handi gu- txi batzuen eskuetan gelditzen ari da hazien merkatu osoa. "Dena jaten ari dira kanibalismo korporatibo horrekin", amaitu du Hazierako kideak. ●

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus • www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1990eko martxoaren 11



KOLDO IZAGIRRE

Geroztik kopuru gizenagotan dabil emakumea bizitza publikoan eta erakunde politikoetan. Euroganberan, ehuneko hogeita hamasei dira. Estatu barruko legebiltzarretan ere poliki ugaritu zaizkigu. Zenbat aldiz hartzen du ordea hitza emakumeak legebiltzarretan? Gizonezkoen batez bestekotik urruntxo. Zenbat minutu emakumezkoen hitzak gizonezkoen jarioaren aldean? Gutxitxo. Ez nagiak direlako: bestelako funtzioak betetzen dituzte, lan handia egiten dute, oro har, gizonezkoek hastio dituzten batzordeetan.

Beste edozein alorretan gertatzen direnak pairatzen ditu politikan emakumeak: onargarri ez diren SMSak, gonbidapen zikinak, lauso zaindu batean bildutako mehatxuak, alderdi barruko arjoak... Emakumeak onartu beharko du biguinkeriarik ardura handiagoko postuetara helduko bada.

Baina politikan ere maila apalekoek pairatzen maizenik eta gordinen sexu bortizkeria: diputatuen prentsa arduradunek, idazkariak, laguntzaileak. Eta kontu gero ezer salatu, jazarlea zuritzearekin batera kenduko dizute lanpostua! Palais-Bourbon zoragarriaren barruan, Paris delikatuak, diputatuen kolaboratzaile femeninoetan bostetik bat dira irain sexisten eta portaera deserosoen biktimak. Lotsa, errudun izatearen sentipena, bakardadea. Eta militantearen kontzientzia dudamudatan: salatuko banu, alderdiaren irudia zikinduko nuke. ●

DIRU-LAGUNTZEN IBILBIDE HISTORIKOA

DIRU-LAGUNTZAK

Zeresan handiko sostengua

MIREN OSA GALDONA

Gai delikatua da diru-laguntzena: gaiaz idazten den bakoitzean jomugan jartzen delako kargu publikoek hartu duten erabakia batetik, eta "ez zarete ezerekin konformatzen" mezuei aurre egin behar zaielako, bestetik. Alta, aldizkari honen historiak erakutsi du argiatarrek ez dutela ahoa itxita izan, eta artikuluetan kontatu izan dutela diru-laguntzen ebazpenen berri.

1987ko abenduaren 6ko astekariak azalean titular hau ekarri zuen: *Jaur-laritzak ARGIA itzali asmoz ari ote?* eta azken orriko editorialean horrela laburtu zuten ordura arte jasotako diru-laguntzen ibilbidea: "Duela bi urte ARGIAk 13 milioitatik gora jaso zituen instituzioetatik, Jaur-laritzak eta Gipuzkoako Diputazioak jasotakoak batuta. Hurrengo urterako, eta Lurralde Historikoen Legearen aplikapenaren arabera, arlo honetako transferentzia eskusiboak Gasteizko gobernura pasatu ziren. Jaur-laritzak haatik ez zuen diru-partida proportzionalki gehitu, bere horretan utziz, eta ARGIAri lehenengo jeiste handia heldu zitzaion, 4 milioitakoa alegia. Aldizkariarentzako diru gehiagorik ez zegoelako aitzakiaz eman zigun %30eko beherapena, baina urte berean *Eguna* eta *Hemen* sortarazteko bazterren batetik atera zituen 18 milioi". Beherapena ARGIAren laguntza erdira jaisteraino iritsi zela azaldu zuen editorialak jarraian: "1985ean 13 milioi, 1986an 8,8 milioi, 1987an 6,7 milioi. Aurten guri 6,7koa eman digun bitartean, *Hemen* eta *Egunari* 20na milioi ingurukoa luzatu die, azken hauek guk baino askoz salmenta eta irakurleko urriagoa izanik, eta haien kostoak ere gureak baino askoz txikiagoak izanik".

90eko hamarkadan diru-laguntzen inguruko artikulua idazten jarraitu

zutela du gogoan Joxe Mari Irazustak. 1991. urtean sartu zen erredakziora, eta ordurako "saltsa ederra" egoten zela dio, orduko hartan ere tartaren zatia ez baitzen izaten konforme egoteko modukoa.

Mende berriarekin batera iritsi ziren "euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak". Sektoreari laguntzeko asmoz, 3,8 milioi euro bideratu zituen Eusko Jaur-laritzak 2004an; zifra bera mantendu zuen 2005ean. Urtebetera %17ko igoe-ra etorri zen. Kontuan hartu behar da ordurako euskal hedabideen sarea asko ugartu zela, eta beharrak kolektiboak bezain estrategikoak izaten hasi zirela.

2012an "krisi-ekonomikoaren aitzakian", Eusko Jaur-laritzak 605.000 euro murriztu zuen euskarazko hedabideentzako laguntza. Egoeraren larritasun hark lagundu zuen Hekimen sortzen, herri ekimeneko hedabideen elkarteak.

2019an gaude baina. Eta Eusko Jaur-laritzak eta hiru aldundiek diru-laguntzak banatzeko planteamendu berria egin dute, Hekimenek parte hartu duen prozesuan. Lehen puntuaketa baten arabera lehian oinarritzen zen sistema, orain hedabideen kostu estandarren %30 estaltzea da planteamendua. Zein hedabide lagunduko dituzten aldundiek eta zein Jaur-laritzak ere "ordenatu" dute. Lau erakundeen artean 10,5 milioi euro bideratuko dituzte euskarazko hedabideak sendotzeko, orain baino hiru milioi gehiago -%41eko igoera-. Urte bukaeran jakingo da hedabide bakoitzak jasoko duen zenbatekoa. ARGIAk desio du planteamendu honek sektorea duintzeko helburua betzea. Gauza bat behintzat ziurra da: ARGIAk bere orrietan emango duela datuen berri, urte hauetan guztietan egin duen bezala. ●

"BERDEA DA MORE BERRIA" LIBURUAREN AURKEZPENAK KATALUNIAN

Koloreak kalean sentitzen dira



Azaroaren 22an Manresako CUPen egoitzan liburua aurkezten.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Koloreak ez dira futbolearen sentitzen, hala behar lukeela esaten badigute ere. Katalunian azken denboretan horiak eta gorriak bakarrik erakusten badizkigute ere, sentitzen dira beste kolore batzuk. Balio du 'berdea da more berria' sloganak. Ondo dator han ere. Herrialde Katalanetan ere ezagunak baitira erresidentzietako langileen borrokak. Borroka sindikalak. Borroka feministak. Ziur "herrialde garatu" deitzen diegun bazter gehienetan ulertuko litzatekeela ondo leloa. Horrela iritsi da Onintza Irureta Azkune ARGIAko erredaktorearen liburua Katalunian egindako aurkezpen-birara, Tigre de Paper argitaletxeak katalanera itzulitako *El verd és el nou lila* (*Berdea da more berria*) liburua besapean hartuta.

Bartzelona, Terrassa, Igualada eta Manresan egin dituzte liburuaren aurkezpenak. Iruretak berak sarrera laburra egin ondoren, hitz egin dute egoitzetako ELAko bi ordezkariak. Lau aurkezpenak katalanezko bertsioa argitaratu duen argitaletxeak eta herri eragileek antolatu dituzte, eta Bartzelonako ekitaldian Carme Herranz izan zen gonbidatua, berak egin baitio katalanera itzulitako liburuari epilogo. Manresan, aldiz, herriko egoitzako langile batek parte hartu zuen solasaldian eta hango errealitatea kontatu zuen.

AURRETIK ERE OIHARTZUN NAHIKOA

"Aurkezpen gehiegirik behar ez duen liburua da. Propaganda handia greba garaian egin baitzen. 378 eguneko greba egin zuten eta gatazkak ia bi urte iraun zituen. Epe horretan borroka sindikal eta feminista hura lau haitzara zabaldu zuten grebalariek. Euskal Herrian egin zen ezagun, eta baita Espainian ere", azaldu digu Onintza Iruretak. ELA sindikatuak harreman zuzenak egin zituen orduan hainbat eragile sindikal eta feministarekin eta garbi zuten euskarazko testuaren segidan helduko zela gaztelerazko itzulpena, besteak beste, jada ezagun zen borroka hori jasotzen zuen liburua Espainian zabaltzeko.

Pozik agertu da egilea, harrera oso ona izaten ari baita argitalpena. "Ezaguna greba garaian egin zen eta orain pentsatzen dut euskal, gaztelania eta katalan hiztunek erreminta bat daukatela greba hura hobeto ulertzeko eta borroka sindikal eta feminista bat nolakoa izan daitekeen hobeto entenditzeko", azpimarratu digu.

Durangon erosi ez duenak edo aurkezpen batera gerturatu nahiko lukeenak badauka hurrengo zita: urtarrilak 24 ostirala Lekunberrin Printza gune autogestionatua. ●

**ARGIA**

1919 · 2019

AGENDA

PAPE NIANG. HASIERA BERRI BAT

Liburu aurkezpena

Liburuaren egile Mikel Garcia Idiakezek liburua aurkeztuko du eta liburuiko protagonista den Pape Niang-ek Senegaldik Euskal Herrira egindako migrazio bidaia kontatuko du.

📍 **Altzo** Batzarremuño kulturalgunea

🕒 **Abenduak 17, 19:00**

📍 **Zizurkil** Plazida Otaño liburutegia

🕒 **Abenduak 18, 19:00**

BERDEA DA MORE BERRIA

Liburu aurkezpena

Liburuaren egile Onintza Iruretak liburua aurkeztuko du eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako langile batek beren borroka zertan den azalduko du.


📍 **Lekunberri** Printza gune autogestionatua

🕒 **Urtarrilak 24, arratsaldez**

MAIZPIDE BARNETEGIKO IKASLEEN BISITA

Azaroaren 27an ARGIAren Lasarteko egoitzara etorri zen Lazkaoko barnetegian euskaraz trebatzen ari den jendea. Ikusi zuten Antza inprimategiko makinaren funtzionamendua eta ARGIAko lan martxari buruzko azalpenak ere jaso zituzten. Artikuluak idazterakoan euskaldun berriekin gogoratzeko aholku eman ziguten, "dena ulertzea zail egiten zaigu-eta". ARGIAko artikuluak klaseetan maiz erabiltzen dituztela adierazi zuten eta urte luzeoko bizia opa zioten bi proiektuek elkarri. Tamalez, Euskal Herria euskalduntzeko lana luzerako baitugu.





Koreomania: dantza eta gaitza



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bernburg (Alemania), 1020ko abenduaren 24a. Hamazortzi herritar kontrolik gabe kantuan eta dantzari hasi ziren herriko eliza nagusiaren inguruan, eta Gabon eguneko meza eten zuten. Fenomeno horri koreomania esaten zaio, baita korea, dantzaren gaixotasuna edo San Bitoren dantza ere –gaitza santu horren madarikazioak eragiten zuela uste baitzuten batzuek–.

Berbugen gertatutakoa koreomaniaren deskribapen zaharrenetakoa da, baina ez zaharrena. Koreomaniaren lehen aipamena VII. mendekoa da. Agerraldi nabarmenak, ordea, Behe Erdi Aroan gertatu ziren, horietako asko Alemanian. 1237an haur talde bat Erfurt-etik Arnstadt-erako 20 km-ko bidea dantzan eta saltoka egin zuen. 1278an 200 pertsona inguru bildu ziren Mosa ibaiaren zubi baten gainean dantzan, zubia eraitsi arte. Dantza epidemiarik larrienetakoa Akisgranen hasi zen 1374ko San Joan egunean eta Flandriara, Italiara eta Luxenburgora zabandu omen zen. 1518koa, aldiz, Strasburgon hasi zen uztailean: Frau Troffea izeneko emakume bat dantzan hasi zen kalean, lau egunetan 33 dantzakide gehitu zitzaizkion, hilabetean 400era iritsi ziren eta horietako asko bihotzekoak jota hil omen ziren. Askok uste zuten gaixoei musikaz laguntzeak sendatuko zituela, baina gehiengotik sintomak larritzea eragin zuen.



PIETER BRUEGHEL GAZTEAREN (1601-1678) DANTZA MOLENBEEK-EN LANAK MUSIKAZ SENDATZEN SAIATU ZIREN KOREOMANIA AGERRALDIA IRUDIKATZEN DU.

XVII. mendearen erdialdetik aurrera ez dago ia gaixotasunaren aipamenik; salbuespena Madagaskarreko 1840ko agerraldia da.

Adituak ez datoz bat fenomenoaz azaltzerakoan. Hipotesietako batek dio ergotismoa zela kausa, hau da ainoak pozoituta hasten zirela dantzan. Entzefalitisa, epilepsia eta tifusa ere aipatu izan dira. Baina askok, osasun arazotzat baino, fenomeno sozialtzat dute koreomania. Agerraldiak garai latzetan, uzta txarren edo izurriteen ondoren piztu ohi ziren. Batzuek sekta erlijiosoekin lotu dituzte. 1997an K. Hethe-

rington eta R. Munrok “estres partekatuari” egotzi zioten nahasmendua.

Italian tarantismo esan zioten antzeko fenomeno bati, dantzarako grina armiarman helduak eragiten zuela uste baitzuten; tarantela izeneko dantza tarantismoa sendatzeko sortu zen. R.E. Bartholomew-ren ustez, tarantismoak eta gaitzaren sendabideak herritarrei “garai hartan debekatuak zeuden jarrerara askatzaileak izateko aukera eman zien. Alegia, garai gogorretan barrenak hustu eta estresa arintzeko aukera zen. Eta hori oso kutsakorra da. ●



Sportula, gabonetako saskia antzinako Erroman

Eguberritako saskiek jatorri paganoa dute, Eguberriek beraiek bezalaxe. Antzinako erromatarrak Saturnalia ospatzen zuten abenduan, neguko solstizioaren inguruan. Saturnoren jaien barruan, *salutatio matutina* izeneko zeremonia egiten zuten:

jauntxo eta ugazabek hain babespeko “bezeroei” (*cliens*) pikuz, ereinotzez eta bestelako jaki bereziez osatutako sorta oparitzen zieten, zumezko saski batean sartuta. Saturnaliako produktu sorta horri *sportula* edo “saskitxo” esaten zioten. ●



BIZKAIA

irratia

Bizkaitik
bizkaira
bizkaieraz

2019

Fm: 102,6

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00



Ondo iruditzen zait kultura-industria egotea, baina ez da nirea”

IÑAKI IRASIZABAL, IDAZLEA

Idazle zornotzarrarekin (Durango, 1969) bildu gara Durangon. Ezohiko idazlea da. Industriako langilea da, metalgintzan ari da. Eleberri eta ipuin beltz andana idatzi ditu. Bere liburuen generoa nola, halaxe ditu eskuak: ilunkarak. *Zorioneko familia* (Elkar) ipuin liburua da bere azken lana. Aldi berean, Gabriel Aresti lehiaketa irabazi berri du, *Epailearen aginduz* ipuinari esker.

 MIKEL ASURMENDI  DANI BLANCO

Orain hogeitazortzi urte luze plazaratu zinen idazle gisa eta 30 dira metalgintzan ari zarela. Zer eman dizu industria alorreko langile izateak, idazteko orduan?

Idazle batek, nahitaez, bere ingurua islatu edota erakutsi egiten du, eta izate horrek langileen eta langile familien testuinguru asko ezagutzeko parada eman dit. Ziur aski, horien arabera gaiak eta jendeak sartu ditut nire liburuetan. Lan-tegiak “ezohiko testuingurua” ematen dit. Nire liburua ezberdinak izango lirake bulegoko lan bat izango banu.

Bizkaiko metalgintzako langileek aurreakordioa lortu duzue, metalean ari den Iñaki Irasizabal idazlea tarteko...

Hala da. Joan den astean greba egin genuen eta gaurko ere (azaroaren 29an elkarriketatu genuen) deituta zegoen. Deialdia bertan behera geratu da aurreakordioa dela eta. Eskariak bidezkoak dira, eta ni ere lankideekin batera borrokan ari naiz.

Idazlea izanda, nola ikusten zaituzte lankideek?

Bitxikeria bezala, baina errespetuz.

Durangoko Azoka, esaterako, zer da zuretzat?

Normalean ez naiz joaten Durangoko Azokara. Kanpotik segitzen dut. Egia da, ni parte naiz, nire liburua han daude, saltzen dira, baina aparte samar ibiltzen naiz, mundu horrek ez nau erakartzen, errespetuz diot, ondo deritzot kultura-industria egotea, baina ez da nirea.

Teresa Larrearen esanean (Xabier Mendigurenen izengoitia izan liteke, liburuen editorea) zure nobelen egiturek thrillerrena jarraitzen dute, baina krimena eta misterioa amua besterik ez dira. Zure benetako asmoa gizartearen erretratua egitea da?

Nire nobelen edo ipuinen muina gizartearen erretratua beltza egitea da. Hala ere, generoaren izendapenak ez nau betetzen. Nik istorio on bat kontatu nahi izaten dut, ahalik eta ondoen narratua.

Gainerakoa bigarren mailakoa da niretzat. Hau da, ipuina bada, eta hamar foliotan kontatu badezaket, ez dut nobela idatziko eta ez da beltza izango. Generoaren izendapena aitzakia da, bitarteko bat. Ez naiz sentitzen genero bati atxikia. Funtsean generoak mugak dira, genero izendatzeak mugatu egiten zaitu eta genero beltzak are gehiago.

Zer da nobela beltza zuretzat?

Delituak dituen istorioa da –horixe du ardatz–, baita gizartearen erretratua egiten duena ere. Baina, esaterako, nobelaren hariak ez zaitu hiltzailea asmatzen endredatu behar, garrantzitsuena hiltzailea nor den ezagutzea bada, niretzat ez da beltza, poliziakoa da. Nik bereizketari hori egiten dut. Genero poliziakoa ez zait interesatzen, nobela horiek matematikatik gertuago daude literaturatik baino.

Asko idatzi duzu eta kritikak kasu egin dizu. Nola tratatu zaitu kritikak? Kritikek, gehienek, ez dituzte ondo jar-





tzen nire liburuak. Kritikariek, oro har, gaizki tratatu naute, nire liburuak ez dira euskal kritikaren gustukoak nonbait.

Saritua izan zara hainbat bider. Berriki, Gabriel Aresti saria irabazi duzu *Epaileen aginduz* ipuinaren bitartez. Zer iritzi duzu literatura sariez?

Sariek bi alde on dituzte: dirua ematen dizute –gure literatur sistemak oso diru gutxi ematen du eta–, eta halaber, zure “egoa” elikatzen dute. Gutxienez, baten batek esaten dizu egiten ari zarena balekoa dela. Gabriel Aresti sarira hiru ipuin aurkeztu nituen, *Zorioneko familia* libururako idatzi nituen, baina gehiegi ziren liburuan sartzeko eta kanpo geratu zitzaizkidan. Bestela ez naiz sarietan aurkeztu. Eta hara, sari nagusia eman didate. Gehienez accesiten bat baino ez nuen espero. Hirugarrena geratuta ere, 1.700 euro jasotzen duzu. Ez da gutxi.

Egoa beharrezkoa al da idazteko?

Ez bakarrik idazteko, bizitzeko ere bai. Egia esan, nire idazle egoa ez da handia, nire toki literaturan ez da apartekoa, pertsona bezala ere ez; haatik, liburuak saltzea edota sariren bat jasotzea motibagarria egiten zait.

Zure ipuin batzuk trantsizio politikoaren osteko garaian kokatuta daude, 80ko hamarkada bukaeran.

Nik ezagutu nuen lehenbiziko mundua 7-10 urte nituenekoa delako. Norberak ezagutzen duen lehen munduko paisaia oso presente izaten du bizitzan, baita

pertsonak ere, nik –zuk esan bezala– 80ko hamarkadako amaierakoa. Adin horretako garaia eta pertsonak indartsu errotzen dira zure baitan, estereotipo batzuk betiko geratzen zaizkizu, pertsonaia batzuk etengabe agertzen zaizkizu gogoan. Pare bat ipuin garai hartakoak dira, ez denak hala ere.

ETAren ondorengo garaia ei da gaurkoa. Aldaketak eragin al du zure idazle ofizioan?

Bai, noski. Hasteko gizarte osoan eragin duelako. Baina aldaketa ez da izan bakarrik ETA desagertu zen unetik. ETAren historian garai ezberdinak izan ziren. Ez da gauza bera nobela bat Euskal Herrian 60ko, 70eko, 80ko edo 90eko hamarkadetan girotzea, garai horietan guztietan gizartearen eboluzioa etengabea izan zen. Adibidez, 70-80ko hamarkadan krisia sekulakoa izan zen, oraingoa baino gogorragoa nire ustez. Hamarkada hone tan bizi duguna gogorra da, baina egun gizarteak ekonomikoki babes gehiago jasotzen du. 70eko hamarkadako jende askok egoera oso gogorra pasatu zuen, kale gorrian geratu zen. Birmoldaketa industrial izugarria izan zen, diru-laguntzak ez ziren egungoen heinean. Noski, oraingo aldaketa itzela izan da. Globalizazioaren fenomeno tarteko, ETAren osteak eragin nabaria izan du gizartean.

Etorkizuneko literatura bestelakoa izango da. Xarma galdu al da?

Bai, bai... xarma egongo da. Gizartea aldatu da, eta are gehiago aldatuko da, baina, auskalo zein estereotipo mota edota kontu xarmagarriak izango diren. Edo zer izango den xarmagarria... Datozen 30 urteetan bestelako tabuak izango dira, gaur egun ez daudenak. Ni, hala ere, baikorra naiz. Ez dut uste gizarteak okerrera egin duenik, aitzitik, apur-apurka hobera egiten du. Nire ustez, hobeto gaude orain jaio ginen garaian baino.

Idazletzara etorrita, zer ekarri du oraingo garaiak?

Egun lehen idatzi ezin ziren gauza batzuk idatz daitezke. Alegia, hainbat gertaeraren eta gaien inguruan idazteko distantzia behar da, eta ez ETAren inguruko gizarteari begira soilik, beste aldekoari begira ere bai. Azken 60 urteetan gizartea zeharo aldatu da, heziketan oso nabaria da hori. Idazleak jendearen iaeraren aldaketari erreparatu behar dio etengabe.

“

Niretzat idazle atormentatua delakoa, idazle estereotipoa da. Idazle madarikatua saltzeko edo prestigioa lortzeko etiketa da, etiketa pedantea”

***Zorioneko familia*-ko ipuinetan heroirik ez dago.**

Nire gustuko narratibaren muina gatazka da, gatazkak istorioa ardatzen du, gatazkak eta adibide baterako, jende herrenak edo osagabeak. Izaera horiek auktora gehiago ematen dizute sinesgarriagoa izateko. Norbaitek dena ondo egiten badu,

zentzunez jokatzen badu, ez da istoriorik, ez nobelarik ez pelikularik... Narrazioak zerbait izan behar du duda-mudazko. Pertsonaia ergelek errazten dute narratiba. Jaidura horrek badu zer ikusia nobela beltzarekin, pertsonaiek beti dute akatsen bat, edota besterekiko ezinegona, gatazka sorrarazten duen zerbait. Gatazkarik ez badago, ez dago ezer kontatzeko. Familia zorionsua bada, hasi eta bi lerrotan bukatu duzu, ezin dituzu ehun folio ehundu. Ironia edota sarkasmoa beharrezkoa dira, nire azken liburuaren izenburua zentzu horretan irakurri behar da, noski.

Familia: maitasunaren habia, gizartearen zutabea, elkar-laguntzerako tresna, umeen haztoki eta zaharren babes.

Familia: itxurakeriaren tenplua, gezurren zuloa, gorrotoen gordailua, zurruntasunaren eskola...

Hala da. Familia ona eta txarra da aldi berean. Literaturara ekarrita, familiaren ezaugarriak egokiak dira narratiorako: mundu guztia delako familiakoa edo familiaren parte, baina denak ezberdinak dira. Familiak sekulako kontraste eta aukera pila ematen dizkizu. Askok erabiltzen da narratiban.

Zure narrazio moldeak kontakizun minberan erortzen da batzuetan.

Izan liteke. Samurtasun apur bat bilatzen dut narrazioak interesgarriak izan daitezten. Pertsonaien garapenak samurtasunera eramaten nau. Irakurle bezala horrelako liburuak gustatzen zaizkit, argumetu nagusiari begiratu baino, narrazioa txikikeriaz eta detailez osatzea gustatzen zait.

Kritikari baten esanean, irakurleak ez du liburuan kritika soziala aurkituko. Nire ustez, kritikariak esan nahi zuen

“ipuinetako batek kritika soziala egitea helburua zuela”. Bada ez. Hori balitz nire asmoa, entsegua idatziko nuke, edo blog bat. Nire helburua istorioak ondo kontatzea da. Nire liburuek ez dute bereziki kritika soziala helburu, ez oraingoek ez iraganekoek. Istorio on bat sortu nahi dut, pertsonaia konplexuak sortu ere, ñabarduraz betetakoak, kritika soziala ez da nire zeregina. Nire nobeletan, batzuetan, kritika sozialaren arrastoa antzeman daiteke, baina nahi gabe ageri izan da. Ipuinetan inola ere ez. Nire liburuetak pertsonaia akastunak dira, gatazka sozialetan murgilduta bizi dira, krisi ekonomikoa eta droga-mendekotasuna ezagutu dituzte, baina horiek horrelakoak izanda ere, ez dut kritika soziala egitea helburu.

Liburuaren azalarekin gustura geratu al zara?

Bai. Editoreak beste ideia bat zeukan, familia amerikar tradizionala *posado* batean ipintzea, argazkia apurtuta... Ilustratzaileak esan omen zion ideia hori oso ikusita zegoela eta niri hau oso ona iruditu zait. Aitaren errauts-poteko esaldia oso ona da: “Aita beti gure gogoan”. Aita beti gogoan, baina jende guztia barrezka dago.

Gizartea asko aldatu da, baita heriotzari aurre egiteko modua ere. Heriotza oso presente dago zure testuetan.

Bai, izan ere, heriotzak baldintzatuta bizi gara denok. Aitaren heriotza sarritan agertzen da nire liburuetan. Baina, hori fikzioa da. Gure bizitzan berriz, benetako heriotza, ezkutatu egiten da, heriotzaren ingurua barra asko aldatu da. Pentsa, nire aitona

hilzorian zegoela, eskutik eraman ninduten harengana, sei urte nituen. Gaur egun, hori ez da egiten. Eginez gero, omen, haurrak ez du lorik egingo, eta ondorioz, psikologoarengana eraman beharko dute.

William Douglasssek [antropologoa] bere lanetan dioenez, Aulesti herrian [Bizkaia] norbait hiltzen zenean, haurrak jartzen zituzten gaubeilaren lehen lerroan. Haurrek errezoak hasten zituzten, apaizaren alboan. Mende batean eman den aldaketa kulturala itzela da, eta ez bakarrik heriotzaren inguruan. Gaur egun hedabidek gehiago eragiten dute jendar-tean, heriotzak baino. Noski, horrek eragina du literaturan.

Sortzaileak errealtatea ezin jasanik, sortzen omen du. Idazleak ere mundu paralelo bat sortu behar du, biziko

bada. Ez da zure kasua,

antza. Zu lantegiko lanari emana bizi zara, industria alorrean...

Printzipioz, ez nator bat premisa horrekin. Gizakia kontalaria da, joko eta jolasa maite ditu, Gizakia *Homo ludens* da, tximu jostalaria. Gizakiak betidanik istorioak kontatu ditu eta gaur egun ere –kultura guztietan– gustatzen zaio kontatzea eta konta diezazkio-tela istorio onak, bizigarriak. Idazleak hori egiten dugu edo saiatzen gara... Niretzat idazle *atormentatu* delakoa,

idazle es-tereotipoa da. *Idazle madarikatu* saltzeko edo prestigioa lortzeko etiketa da, etiketa pedantea. Nik ezagutzen ditudan idazleak normalak dira, bizitza normalizatua eta eroso daramate. Ez dira zubi baten azpian bizitzen. Nik ez dut horrelakorik ezagutzen behintzat. ●



GARBIÑE UBEDA

mehatxua

Gazte bilduma

elkar

www.elkarargialetxea.eus

GUSTAVE FLAUBERT HONDARRIBIAN

Kostaldeko herri suntsitu baten erretratua, turista berezi baten lumaz

Gustave Flaubertek gaztetan Euskal Herrian egindako bidaia ez da sobera ezaguna euskal irakurleentzat. Idazleak bere obra handiak izkiriatu aurretik, inguru hauetako zenbait herri ezagutu zituen eta hil ondoren publikatutako liburu batean jasota daude haren hainbat inpresio. Merezi du haietara itzultzea. Artikulu honetan, Hondarribiari buruz zer esan zuen berreskuratuko dugu.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  BLIGHT BARKER / SIDNEY CROCKER

1 840an, 19 urterekin, ikasle gisa ibilbide gorabeheratsu samarra izan ondoren, eta gurasoek utzitako sosaz baliatuz, Gustave Flaubertek Pirinioetan eta Korsikan barrena bidaiatu zuen. Gaztetatik letren adikzioan eroritako norbait zen, bere menderako ere oso idazle goiztiarra –13 urte zituen lehen testua argitaratu zuenean, berak eta Ernest Chevalier ikaskideak sortutako *Art et progrès* eskuz idatzitako aldizkarian–. Hortaz, bidaia horri buruz idatzi zituen lerroetan agertzen den Flaubert ez da oraindik *Madame Bovary* edo *L'Éducation sentimentale* nobela handiekin XIX. mendeko *rockstar* literario bilakatuko zena. Baina hala ere, Flaubert Flaubert da: Frantziako literaturaren idazle handienetako bat, guztiz kanonikoa, gaur egungo idazle ez gutxiren inspirazio iturri. Estiloan perfekzionista, bizi izan zuen mendearen kontalari zehatza –“*le mot juste*” erabiltzeko grina horren gramo bat arnastuko bagenu geroz eta zabarrago idazten dugun kazetariok, ai, orduan–, eta horregatik, deigarria egiten da Euskal Herriaz idatzi zuenak jaso duen arreta eskastxo.

Hartu Hondarribiko kasua, adibidez. Udalaren webgunean sartzan bazara, XIX. mendeko bi idazle frantses inportantek herriaz idatzi zutela aipatzen da –Victor Hugo eta Stendhal–, baina Flaubert ez da inondik ageri. 1973ko herriko jaietan Iggy Pop, David Bowie eta Lou Reedek

Bentan jo, eta orain hura kontatzen has-tean hiruretako bat aipatuko ez bagenu bezala da: atentzioa deitzen duen hutsune bat, segur aski Flauberten testua ez ezagutzeari egozten ahal zaiona –idazlea hil ondoren argitaratutako *Voyage dans les Pyrénées et en Corse* liburuan agertu baitzen, obra minor bat–, baina nolanahi ere, bete beharreko zuloa, ez gabiltza-eta horrelako bisitariz oso aberats.

Mahukak ukondoraino bildu eta goazen, bada, orrialde preziatu horiekin lan pixka bat egitera: Bidasoak Hondarribiraino eraman duela esplikatuz eta Faisaien Irla mesprextatu ondoren –ez omen zuen aipamenik ere merezi–, alde zaharreko ate nagusian dago Flaubert. Bera sartzan eta neska kozkor bat ateratzen, “hanka-hutsik, gorriz jantzirik eta trentzak sorbalden gainean; ez zuen atzera begiratu eta bere bidea jarraitu zuen. Hondarribia erortzeko zorian dagoen herria da. Ez da batere hotsik entzuten kaleetan, belarrak bultzaka hazten dira horma kiskalien kontra, ez dago leihorik etxeetan. Kale nagusia zuzena eta malkartsua da, etxe beltzez inguratua, zeinak balkoi ustelduz hornituta dauden, haietan zabal eguzkitan lehortzen piltzar gorriak; astiro igo dugu, alde guztietara begiratzen eta are gehiago begiratuak izaten”.

Tira, hondarribiar txobinista samarra bazara, kontua ez da oso ongi hasten, hori da egia. Baina aizue, Lehen Karlistaldia-

ren azken tiroak entzuten ziren Rouenen jaiotako idazlea hemendik pasa zenean, ezin zitzaion herriari eskatu txol polit eta distirant egoteko trabukoekin tira eta tunba jardun berritan. Gainera gero gauza hobetzen hasten da, ematen baitu Flaubertek *trip* bat izan zuela herriko kaleetan: “Hondarribian promenatzen nintzen bitartean, erabat ireki nintzaientzatez gertatzen zitzaizkidan inpresioei, eszintazioz gozatu nituen, dena irentsi nahi zuen sentsualitate batez; indar guztiekin murgildu nintzen nire irudimenean, irudiak eta ilusioak osatzen nituen eta plazer osoz hartu nuen galtzeko eta murgiltzeko aukera”.

Emakume baten kantuak eteten du gogobetetasun egoera hori. “Kanta espainiar” baten erritmo geldo eta tristeak deitzen du idazlearen arreta: “Adineko emakumea zen segur aski, ahotsak dardara egiten zion eta desagertutako zerbaitz dolutzen zela zirudien. Ez nuen deus ikusten, kalea huts-hutsik zegoen, gure buru gainean zerua urdin eta distiratsu, denok isildu ginen. Zer esan nahi zuen ahots zaharrez abesturiko kanta espainiar hark? Hildakoen dolua ote zen? Gaztaroko urteetara itzulera? Jada ez dagoen garai on baten oroitzapena? Hondakin hauen gainean abestutako gerra-kanta? Edo andre zahar ezezagunak xuxurlatutako amodio kanta?”. Zalantza horretan dagoela, beste ahots bat, gazteagoa, abes-

ti alaiago batekin hasten da, Flaubertek bolero gisa deskribatzen duena; baina agudo bukatzen da idazleak larretxorien melodiarekin parekatzen duen kantua.

Oinez segitzen du beraz, han eta hemen kale erdian agertzen zaizkion putzuak saihestuz. “Ez dakigu nora goazen, herriak ere noraezean dabilenaren itxura dauka, eta gauza mingarriak pentsatzen dituenarena”. Esaldia hobe ulertzen da pixka bat aurrerago, arrantzale batekin topo egin eta gerran giriak tirokatzeko erabilitako postua erakusten diotenean. “Karlistek gogor eutsi dutenez, banaka-banaka erori dira, Erdi Aroa harriz harri erori zen bezala; baina erauzi egin behar izan dituzte, eta azkazal ugari zartatu da; etxe bakoitza, ate bakoitza, habe bakoitza balaz zula-zula eginda dago, elizak kanoikadak jaso ditu, etsaien obusak Behobiaraino iritsi dira eta gizonak hil dituzte”. Bat-batean badirudi bohemioak, estilistak, bidaiari kezka gabek ezin duela inguratzen duen horretaz abstrakzio gehiago egin.

Irakurri berriz aurretik kontatu dituenak: kiskalitako hormak, etxe beltzak, hanka-hutsik dabilen neska hura begiratu gabe ondolik pasatzen, herritarrek ondo jantzitako bisitarien zelatan, adineko emakumearen kantu tristea. Gerra-ondoko irudiak dira, 1840ko Hondarribia, gaurko Siria, zer axola du, gorpuk oraindik epel daude. Madalena auzora ere joango da geroxeago, eta haurrek samaldan inguratuko dute, limosnaren bat jasoko duten esperantzan. Flaubert: aberats bat, heriotzak eta miseria gorriak hondatutako Gipuzkoako azken herrian. Akaso irudi triste hori eman zuelako ez da aipatzen bisitari ilustre honek idatzitakoa? Idazleari, nolanahi ere, arrastoa geratu zitzaion: “Hondarribia utzi nuen, maitatutako zerbait uzten den atsekabez”. ●

1839AN, FLAUBERT HERRIRA
IRITSI BAINO URTE BAT
LEHENAGO, ITXURA HAU
ZEUKAN HONDARRIBIKO
SARGIAK GARAI HARTAKO
BISITARIEK MARRAZTU ZUTENEZ.



Hondarribia euskaraz bizi



Hondarribiko Udala





LIBURUA

Scorseseren arima



ARIMAREN ETORKIZUNA. ESTANDAR-EMOZIONALAREN SORRERA

EVA ILLOUZ

DANELE SARRIUGARTE (ITZULTZAILEA)
KATAKRAK, 2019

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Martin Scorseseren azken elkar-
rriketak ekarri du matraka.
Marvel-eko super heroien peli-
kulak ez omen dira zinema. Zuzendari
amerikarrak dioenez blockbusterrok
sentiarazten dutena hurbilago dago
atrakzio-parkeek eskaintzen dutenetik
egiazko zinematik baino. Azaldu egin
du: zinema bada autore indibidualak
taxutu eta errebelazio espiritualera bi-
deratutako arte-forma; Marvel-eko fran-
kiziak dira merkatu-ikerketaren eta au-
dientzien azterketaren arabera moldatu
eta ondoren baietsitako merkantzia. Ho-
rratx ezberdintasuna.

Arimaren... irakurri eta Scorseseren
eztabaidaren aurrean nagitasun-has-
perenka imajinatu dut Eva Illouz au-
torea. Egia da, Illouzek ez du zinemaz

idazten. Haatik, arimadun arteari eta
merkatuen emozio-estandarizazioari
buruzko eztabaidaz pentsatzen lagun-
tzen du. Arima eta merkatuaren artean
lubakia eraikitzen duten argudioak
beste kokagune batetik hausnartzea
egiten du posible.


Illouzen begirada ez da “arima ver-
sus merkatua” banaketaren alde batean
ala bestean kokatzen. Aitzitik, banake-
ta horren eraikuntza bera da zalantzan
jartzen duena. Illouzen begiradatik au-
keratu beharrekoa ez da zeren alde gau-
den: benetako zinemaren ala atrakzio
-parkearen alde.

Illouzen galdera da zer metafora da-
rabilgun banaketa horren alderdi ba-
koitza ulertzeko eta metafora bakoitzak
zer botere erlazio abiarazten dituen.

Errebelazio espiritualaren arima da me-
tafora, ala metafora da psikea eta hari
lotutako emozioak. Arimaren hierarkia
moralen inposizioa da metafora horre-
kin lortzen dena ala psikearen merkatu
ustiapena da ahalbidetzen duena.

Eta kokagune kritiko pribilegiatu ho-
rrek ematen dio aukera irakurleari esa-
teko: ez. Eskerrik asko baina ez inposizio
moralaren eta merkatu ustiapenaren ar-
tean aukeratu beharrari. Ez, “arima ala
merkatua” banaketari berari.

Scorseseren matrakara Illouzen esku-
tik itzul gaitzek horrela. Super heroien
filmak dira, hain justu, gure gaurko ari-
ma hipermoderno kapitalistaren, hots,
gure psike garaikidearen isla. *Arima-
ren...* da bestalde, psike horren eraikun-
tza zalantzan jartzeko tresna. ●



MUSIKA

Goxoki musikadunak



Aguraingoak dira Duplako bi kideak.

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Ez CD, ez binilo, ez USB. Txupatxusa. Duplak txupatxus gisako euskarri bat baliatu du *Folklore* izenburua duen bere lan berriko kantak zabaltzeko. Goxoki musikadunak diseinatu dituzte, *Duplatxusak*. Goxokiek estalkian QR kode bat daukate, sakelako telefonoaren bidez irakurri ahal izateko, eta, haren bidez, haien webgunean kantak entzun edo deskarga daitezke.

Oso ideia originala da, berritzailea, bitxia. Duplako bi kideen izaerarekin bat datorrena, erabat. Argi dago gaur egun musika eta kultura kontsumitzeko era aldatu dela, eta hori onartuta, aukera berri bat proposatu dute.

Aguraingoak dira. Landa ingurune batean musika hiritarra egiten dute, elek-

tronika, hip-hop eta pop musikaren arteko nahasketa. Errimak eta melodiak ongi landuta eta zainduta, bizitasunarekin, erraz eta batere lotsarik gabe aritzen dira, graziarekin eta erritmoarekin, gatzarekin eta piperrarekin. Nabarmena da daukaten etorria.

Etorkinen tragedia, arrazakeria, matxismoa, homofobia, harremanak, maitasuna, dirua, drogak, eta beste hainbat gairi buruz mintzo dira, gazteek izan ditzaketen kezkei buruz, ironiarekin ere aritzen dira pertsonen itxurakeria eta haien kontraesanei buruz, “progresistak, modernoak eta ezkertiarak” omen direnei buruz, eta nor den bezalakoa izatea, nahi duena izatea aldarrikatzen dute.

Duplaren proiektua 2018ko neguan



FOLKLORE

DUPLA

AUTOEKOIZPENA, 2019

martxan jarri zuten. Denbora honetan, hainbat ikus-entzunezko sortu dituzte, Youtuben jarri dituzten bideoklipak, eta, taldekideen hitzetan, “lehenengo lan kontzeptuala” Durangoko Liburu eta Disko Azokan aurkeztu dute, *Folklore* izenburua duena.

Haien jendaurreko emanaldiak ikusgarriak izaten dira, ahotsarekin eta bateria batekin, elektronika eta antzerkia uztartuta. Ikuskizunak. Youtuben dauden haien bideoklipak ere bai. Horrela, gero eta ezagunagoak egiten ari dira. “Etorri gurekin eta ulertu zein den gure martxa, ikusiko duzula nola dagoen jendea dantzan, utzi beldur denak eta sartu gure saltsan, egingo dugula eztanda”, *Badator* kantari diotenez. ●



Makarenko eta ukabilkada

 XALBA RAMIREZ  AMAIA OCA

1957an egin zen Sao Pauloko Nazioarteko Eskulturaren IV Bienalean hamar lan aurkeztu behar zituen artista bakoitzak. Jorge Oteizak ordea, 28 eraman zituen: “Eskatu zenizkidaten hamar eskulturekin hemen egotea imajinatu dut nire burua. Egiatan, bat baino ez da. Pentsamendu bakarra Estatua proiektatzeko, espazioaren desokupazio aktibo gisa, unitate formal irekien arteko fusioagatik”.

Pelax taldeko kideek ere, streaming kulturak ekartzen dituen utzikerien eta errazkerien kontra, formatu bera bihurtu dute artelan. *A* eta *B* kantuz osaturiko 20 minutu inguruko bi piezako lana argitaratu dute udaberrian, ondoren *D* eta *E* aldeekin aurreko lanari osotasuna emanez. Oteizak egin bezala, ordea, artelan bakar baten gisara hartu behar dugu. Disko bikoitza baino, disko bakar baten bi urrats izan ditugu hemen.

Eta urtea borobil amaitu dute: kontzertua amaitu eta eskuak apurtu arte

zutiaraziz zaleak. Horren alde zuten plaza; Egiako Gazteszenan, sarrera denak agortuta, gertatutakoa berezia izango zela bazekiten 300 bat lagunen aurrean.

Urte bereziak amaiera berezia behar. Entzuleak eserita eta ohiko lau taldekideez gain oholtzan zen Telmo Trenor beat-maker ezaguna sintetizagailu eta samplerrekin jolasteko. Beste aldean Nagore Legarreta eta Iñaki Rifaterra artistek, pintura eta argazki proiektzioen bidez inprobisatutako artelana egin zuten: kantuekin batera aldatzen zen artelana. Uneren batean gehiago gustatuko zitzaizun, ostean gutxiago. Etengabe-ko garapen inprobisatuak hori dakar, “ahaztu zenekiena, gozatu oraina”.

Gaua borobiltzeko Malen Otxoaren bideoa ikusteko aukera izan zen. Urte osoan taldearen irudiak batu ditu Otxoak, lokalean, estudioan, furgonetan, kontzertuetara bidean... dena ez baitira argiak eta txaloak. Atzetik dagoen lana

ederki aurkeztu zen. Entzun genuenez Otxoaren lehen lana izan zen, baina espero dugu azkena ez izatea.

Eta guztiaren gainetik musika. Lokalean orduak eta orduak eman dituen boskoteak egurra eman zuen, baita ondo eman ere; dena maisuki jota, indartsu eta detailez josia, ia geratu gabe, King Crimsonen *21st Century Schizoid Man*-en bertsioa barne. Jaione Dagdrømmerrek ondo adierazi bezala, boxeo zelai batera bezala atera ziren denak, borroka egin eta irabazteko prest. Aspaldi ez dela horrelakorik ikusi underground eszenan.

“Ez zenuen Makarenkoren berririk izan ukabilkada jaso arte”, abestuz bukatu zuten. Datozen urteetarako poema pedagogiko ederra ari dira sortzen Pelaxtarak. Eta ukabilkada mordoxka bat ere, gauzak beste manera batean egitea beharrezkoa izateaz gain posible ere badela erakutsiz. Eta puskaz desiragarriagoa ere. ●

Graciela García Romero

GIZA ESKUBIDEEN
DEFENDATZAILEA



BIZIRIK ETA IRRIBARTSU

Bi urtez izan zuen Argentinako armadak bahituta ESMAn (Armadaaren Mekanika Eskola). Buenos Aires hiria erdian egon arren, ez zuen inork jakin non zeukaten 1976 eta 1978 bitartean. Torturatu eta bortxatu egin zuten, eta esklabu lana egiten jarri zuten geroago. Bizitakoaren esperientzia partekatu du gurekin kafe bat hartu bitartean Gogoran, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan. Kontakizun gordina, baina irribarreari uko egin barik egin du; "barrutik osatu" eta, era berean, "duintasuna ematen didalako".

"Emakume politizatuak ginen, independenteak eta armadunak, gizonak bezala"

Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuen eskutik "ESMA emakumea izatea, atzera begiratzeko lekukotzak" erakusketa izan dute azaroan Bilbon. Argentinako 1976-1983 urte arteko diktaduran, ESMA Armadaren Mekanika Eskola atxilotze-zentru bihurtu zuten militarrek; egun, memoriaren museo gisa funtzionatzen du. Horren berri ematen izan dira Euskal Herrian *Museo Sitio de Memoria ESMA*ko (ESMA Memoriaren Tokia Museoa) zuzendari Alejandra Naftal eta handik bizirik atera zen Graciela García Romero.

 MARIJO DEOGRACIAS  CAMILO DEL CERRO / MUSEO SITIO DE MEMORIA ESMA

Nondik nora Bilbora?

Erakusketa Buenos Airesen inauguratu zenean harrera beroa izan zuen; urak nahasi zituen hainbat sektoretan. Erakusketa jarri aurretik lan handia egin zen kontsentsu bila, gaiak eztabaida handia eragiten duelako. Beharrezkoa ikusi zen bizi izan genuenaren inguruan ados jartzea, genero ikuspegia kontuan hartuz. Bilbora Alejandra Naftalen eskutik etorri naiz, bizi izan nuena ezagutzera emateko.

Bahituta izan zintuzten. Nolakoak zen leku hura?

Diktadura ezarri berria zela bahitu ninduten; orduan bahitutako gutxi ateratzen ziren bizirik. Emakume gehienak bortxatu gintuzten. Ez zuten suntsitze planteamendua disimulatzen. Gu desagerrarazteko suntsitze gerra zela zioten. Momentu batetik aurrera aldatu egin zuten portaera. Gure erakundearen aparatu finantzarioa jausi zenean, lapurretaren mauka deskubritu zuten. Gainera, armadako buruak politikan jarduteko aukera ikusi zuen eta pre-

soen artean gaitasun politiko handia zegoela ohartuta, *modus operandia* aldatu zuten. Lan esklaburako bulegoak ezarri zituzten. Jakina, atxilotzen eta torturatzen jarraitzen zuten, baina 1976an ohikoak ziren etengabeko eskuburdirak, bilurrak eta kaptxa jada ez ziren hain ohiko.

Zenbat denbora izan zintuzten bahituta?

Bi urtez, 1976ko urriaren 15etik 1978ko abendura arte.

Eternitate bat.

Absolutuki. Hala ere, nire kide batetik dioten bezala, berdin dio 24 ordu, aste bate, hilabete edo urte bate... Hiltzaile haien eskuetan bizi izanak beti uzten dizu marka.

Zergatik kontatu? Nola laguntzen du horrek?

Lekukotzak zentzu bi ditu. Niretzako sendagarria da. Freudik ikasi genion terapiak laguntzen duela kanporatzen infernu terminoetan barruan duzuna. Lekua hartzen laguntzen



"MOTIBATZEN ZITUENA, BATEZ ERE, GU DIZIPLINATZEA ZEN, GURE LEKUAN JARRI ARAZTEA. BORTXAKETA, ZENTZU HORRETAN, ESTRATEGIA BELIKOA ZEN".

dizu, eragindako erasoak izendatzen eta barne armoniaren etaparekin hasten. Bestetik, lekukotza kolektiboa legoke. Hemen ere bizi izan dituzue indarkeriak eta berdina izan ez arren, nolabaiteko markak utzi dituzte, 70eko hamarkadako markak. Orduko belaunaldiak adierazteko modu bat aurkitu zuen, gaur egun eztabaida genezakeena, baina sekulako erantzun errepresiboa jaso zuen. Horri erreferentzia eginez diot "inoiz gehiago ez", baita errespetu terminoetan hausnartu beharra dugula ere. Gu bahituta izan gintuzten modua erdi arokoa da. Lurpean geunden, hiriaren erdialdean, baina inork ez zekien non ginen. Oso maltzurra da hori. Lehenengo asteburua igaro bezperan zaintzaileak galdetu egin zidan ea eskuak atzean ala esku-ohera lotuta nahi nituen. Gauza oso bortitzak dira eta beharrezkoa deritzot kontatzea, basakeria erakusteko. Indar armatuei eskumen osoa eman zieten erabakitzeo nork bizi behar zuen eta nork ez.

Zuek ekintzaile politikoak zineten, eta emakumeak.

Bai. Batetik, hazten hasi zen emaku-

me eredu bat ginen. Klase ertaineko familietakoak. Unibertsitate ikasketak, ezkontza eta umeak izatea espero zen gugandik. Baina maitasun libre praktikatzeko hasi ginen, etxeetatik alde egin eta komunitateetan bizitzen. Zegoen ereduarekin apurtu genuen. Bestetik, gure militantzia oso azkar batu zen esperientzia armatura. Emakume politizatuak ginen, independenteak eta armadunak, gizonak bezala. Gure bortxaketen inguruan teoria asko daude, batzuk diote gizonen artean mezuak bidaltzeko modu bat zela. Onar nezake hori, baina motibatzen zituena, batez ere, gu diziplitatzea zen, gure lekuan jarri araztea. Bortxaketa, zentzu horretan, estrategia belikoa zen.

Noiz ohartu zinen bizirik atera den norbait zarela?

Acostak [bere torturatzailerak] behin esan zidan nire kide guztiak hilko zirela, baina ni salbatuko nintzela. "Zergatik ni?" galdetuta, "Jesuitok hala nahi duelako" erantzun zidan. Horrek errudun sentimendu izugarria eragiten dizu eta erru horrek isilik izan ninduen atera oste-

ko lehen urteetan. Biktima gauzaez nintzen, autoerrukia. Primo Levi oso adierazgarria izan zitzaidan ulertzeko norbanakoak kontzentrazio-esparruan bizi duena. Hari esker esan nuen, "baina zer egin ziguten!". Orduan igaro nintzen bizirik ateratakoa izatera, esperientzia transmititu behar dugula sinestera, duintasuna ematen digulako.

Espainiako Estatuan geroztik eta ohikoagoa da frankismoa publikoki goraipatzea. Argentinan gertatu zena berriro ez gertatzeko haina sozializatu da?

Sinetsita nago nire herrialdean ez dela gaitz gabea ikasgaia. Justziarengan konfiantza askorik ez duen herrialdea gara, baina epailetak hastea oso garrantzitsua izan zen. Ez zuen inork entzun nahi hilabeteak eman genituela lotuta, gure eginbeharrekoak balde batean egiten, bortxatuak izan ginela, lurpean botata izan gintuztela ezereza edo ogi puxketak jaten... Hori ez du inork entzun nahi, baina badakite. Badakite justizia egin zela. "Acosta, biziarteko kondena" entzutea demasa izan zen. ●



Irakasleen oporrek kaltetutako gurasoak antolatzen hasi dira



GURASOEN JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA ESKATU ZITUZTEN IRUÑEAN.

Ezerk berdintzen baditu ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatu kristauak, horiek dira irakasleen oporraldiak, izan udakoak, Aste Santukoak edota Gabonetakoak. Guraso batzuek, ordea, euren atsedeen-eskubidea aldarrikatu eta irakasleen pribilegioak murrizteko helburuarekin, Segi Eskolara! plataforma sortu dute. “Joder, Olentzero eta Maridomingi mendira joaten direnerako medikutara jolastera, bizizale horiek hamazazpi egun daramatzate

oporretan, kexu da Ikerne Gatua, plataforma kidea. “Haien opor egunak murriztea eskatzen dugu, edo gutxienez ardura batzuk euren gain hartzea. Montetxoriren *Oldartzen* txosten pedagogikoak argi azpimarratzen duenez, sufrimenduaren sozializazioa gakoa da ume eta gurasoen garapen psikopintxopotekniko egokirako. Hau da, guztiok eman behar dugu egunero orduren bat, gurasook guztiak eman ez ditzagun ume ostia horien atzetik”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Partida 9 / 10

00:43

Munduko txokoak

Norena da Errondako lokala?



IKASLE ABERTZALEAK

SORTU

ERNAI

ENPRESAKO AFARIAN,
NAGUSIAK NAGUSI
IZATEN JARRAITZEN DU.
EZ DA ZURE LAGUNA



ILARAK LARRABETZURAINO HELDU DIRA.

A-8ko trafikoa normaltasunera itzuli da Toti Martinez de Lezearen sinadura nahi zutenen ilara desegin ondoren


A-8ko trafikoa berriz ere betiko mar txan dabil aste honetan, Durangoko Azoka amaitu ondoren. “Bukatu da infernua”, dio Ertzaintzako trafiko unitateko kide batek. Lau egunez auto-pilaketa handiak izan dira Bizkaia eta Gipuzkoa lotzen dituen autopistan, Toti Martinez de Lezearen sinaduraren zain zeuden jarraitzaileen ilarak era-

ginda. “Adin guztietako jendea ikusten genuen zutik. Hasieran ilara lurretako peajeraino bakarrik iristen zen, baina larunbatean Eibar parean ari ziren galdetza ea nor zen azkena. Eromena izan da”, azaldu du polizia autonomikoko kideak. “Gainera, hainbeste jendekin azkenean Totiren liburutik gabe geratu naiz”, kexatu da ertzaina. ●

Ikusi hamai nahieran



Gerra Zibilaren lekukotzarik esanguratsuena.



**ORAIN
EUSKARAZ**

Euskadi, auzolana



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA